

AUSTRALIA: Gobernuak etorkinak hiri handietatik urrundu eta barnealdera bideratu nahi ditu > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
Euskal Herria eta Katalunia, aitzindari izateko aukeran **RAMON SOLA** > 11

2018ko azaroaren 17a | XII. urtea • 595. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info



**Etorkinak kostaldeko hiri
handietatik urrundu nahi ditu
Australiako Gobernuak** 04

**Michelle Obamaren memoriek
ikusmin itzela piztu dute** 09

**Gasteizko udal rokodromoak,
esleitu gabe eta itxita** 12

Ohiturak 17

Xaboiaren usaina 18

**E.lkarrizketa: Alexander
Rodriguez** 22

Sarean 26

In fraganti: Ane Pescador 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Maite Ubiria:** Txaleko horien
oldarraldia eta trantsizio
ekologikoa

10 **Oier Gorosabel:** Sexu jazarpena
fisioterapian

11 **Ramon Sola:** Euskal Herria eta
Katalunia, aitzindari izateko
aukeran

16 **Unai Gaztelumendi**

20 **Gorka Etxebarria:** Azken
mohikanoak

21 **Amaia Nausia Pimoulier:**
Skolae eta doktrinamendua

25 **Joxean Agirre:** Euskaraldia

25 **Nekane Zinkunegi:** Gertutasun
erlatiboa

30 **Ana Elozegi Serna:** Bihotz mina



{ datorrena } Maite Ubiria Beamount

Txaleko horien oldarraldia eta trantsizio ekologikoa

Garai berrietako mobilizazio ereduaren baitan kokatzen den interes indibidualen arabera oldarraldi kolektiboaren episodio berria biziko da, gaur, Hexagonoko bide eta karriketan. Dieselaren prezioaren garestitzea eta oro har gobernuaren «poltsikoen xurgatze politika» jarri dute jomugan txaleko horia sinbolotzat hartu duten herritarrek. Mugimendu bat osatzen dute? Helburu orokorren alde jarduten dute? Guztiz ulergarriak diren beraien arranguretatik at gizartearen aldaketa dute xede? Norantz? “Soziologiaren herrialdeak” hamaika prentsa orri, telebista minutu eta eztabaida akademiko sutsuren bidez helduko dio gaurko mobilizazio egunari, besteak beste, salerosketa ahalmenaren gorabeherak panorama politikoan eragin ditzaketen albo-kalteak aztertzeari.

Ultraeskuinak eta muturreko nazionalistek –Rassemblement National, Debout la France...– ez diote erreparorik jarri trantsizio energetikoaren aldaketaren faktura «kontsumitzaileen gan uzteko» asmoa salatzeari. Hori bai, alderdi horiek beraiek klima aldaketaren gainean, baita ongizate estandarretan Frantzia bizitzen ari den galera azkarra-

ren gainean ere, ardura askoz handiagoak dituzten elite ekonomikoei zergak igotzearen kontra dira. Are, «sufritzen duen herriaren» banderola altxatzen dutenetako batzuek, Marine Le Penen alderdiak kasu, Europar Batasunetik jasotako diru publikoa maltzurki erabiltzeagatik inkesta zabalik dute. Behin hori argituta, zerga injustuaren salatari publiko bezala agertuz, dieselaren gaineko kalapita aitzakiatzat hartuz, “Dama Urdinak” azeleratzailea nahi du zapaldu, frantziar presidentetzarako hauteskunde hiru garren buelta hemendik hilabete gutxira jokatu baita, Europako Parlamenturako bozetan.

Horiek horrela, txaleko horien protestaren aurrean nola jokatu behar dute Macronen erreformismo ultralibe-

ralari erantzuna –eta ezkerren kasuan alternatiba– emateko premia duten gainerako eragileek? Aukera al da beraientzat gidari haserretuekin karrika partekatzea? Arrisku gehiegi hartuko al lukete, beraien agenda eta lehentasunen sailkapena albo batera jarrita, oihuari bozgorailu emanaz? Komunikazio kabineteetan eztabaida ez da seguruenik samurra izan. Eskuinaren lerroetatik hasita, oilar bakoitzak apustu gogo diferentearekin erantzun dio posizioa finkatzeko enbidoari. Beste hainbat aferatan bezala, lurralde eta eskualdearen arabera garrantzia oso ezberdina hartzen duen gaia honetan nahi eta ezinean murgildu dira eskuineko oilarrak. Egiatzki, Macronek Lehen Mundu Gerraren amaieraren mendeurrenaren bezperan zerbitzatu zuen platera, petenismoaren birkozintutako errezeta, guztiz edo erdizka digeritu behar duten

Heldu den udaberrian, Parisetik hasita, diesela erabiltzen duten ibilgailu zaharrak erretiratzeko planak abiadura hartuko du. Ordurako, txaleko horien sutea itzalita ez bada kontrolpean behar du Macronek

erabakitzearekin nahiko lan dute kontserbadoreek. Ezker eraldatzailearen eremuan, berriz, La France Insoumise alderdia nola mugitu da? Banderola gorriak eta txaleko horiak bateragarriak al dira? Jean-Louis Melenchon ez soldadu ez desertore gisa azaldu da. Hitz jokoa erabilita, *faché* (“haserretu”) guztiak ez direla *facho* (“faxista”) oroitarazi du, erregaien prezioa ordaintzen duten samin-duen aurrean kokapen neutro samarra hartuz. Gobernuak, azkenik, protesta apaltzera jokatu du, blokeoen aurkako mehatxuak eta neurri aringarrien amua tarte-katuz. Gaurko sutea kontrolpean jartzea du xede, heldu den urtean abian emanen duen diesel ibilgailu zaharren ehiza baldintza hobeagoetan gauzatze aldera. •

AUSTRALIA ZURI ILUNA

Etorkinak kostaldeko hiri handietatik urrundu eta barnealdera bideratu nahi ditu Gobernuak

Australiako Gobernuak Asia ekialdeko azpi-kontinentera iristen diren etorkin “legalak” herrialdearen barnealdera bideratu nahi ditu, gutxienez bost urtez Sydney, Melbourne eta gainerako hiri handietatik urrutiratzeko. Hori da, behintzat, Biztanleria ministro den Alan Tudge asmoa. «Hemen gakoa ez dago hazkunderan edota zenbakietan, hazkunderaren banaketan baizik», azaldu dio egunotan ministroak berak ABC telebista kateari.

 **JENDARTEA** / Dabid Lazkanoiturburu

Australiako kostaldeko hirietan ematen ari den migrazio hazkunderak arazoak sortzen dizkio Gobernuari. Hartara, migratzaileak jende beharra duten barnealdeko eremuetara bideratu nahi ditu. Preso bezala heldutako britainiar etorkinek eratu zuten Australia zurian, ordea, eta paradoxikoki, xenofobiak badu lekua. Galdetu, bestela, inguruko irlatan preso dituzten errefuxiatuei.

Populazioaren hazkundera buruz eta etorkinen harreraren inguruan aztertzen ari diren planak aurkezteko Melbournen agerraldia egin berri du Tudgek. Helburua etorki-

nak nekazaritza eremuetara eta populazio gutxi duten hiriguneetara bidaltzea omen da, betiere gainezka egin duten hiriburuen inguruko presioa arintzeko. 25 milioi biz-

tanleko uharte-kontinente erraldoian berez jende gutxi bizi den arren, populazioa %1,6 hazi da, Ekonomiaren Elkarlan eta Garapenerako Erakundearen –Mendebaldeko 49 estatu hartzen dituen EEGE– barnean ematen ari den handienetarikoa.

IZUGARRIZKO HAZKUNDEA

Sydney, Melbourne eta Queenslandeko hego-ekialdea mundu osoan hazkunderik azkarrena duten hiriguneen artean daude, «etorkinen jarioa dela eta», azaldu du Tudgek. Bere hitzetan, aipatutako lehen bi hiriburuek hazkunde demografikoaren inguruan egin ohi diren pronostikoak

Airetik ateratako irudian, Australiako hegoaldeko ingurune idor bat. Getty Images



%100 gairitu dituzte azken hamarkadan. Hiri handietan eman den populazio igoeraren %60 etorkinek osatzen dute, eta, iaz adibidez, Australiara iritsi ziren “etorkin prestatuen” %87 Sydney eta Melbourne gelditu zen.

AZPIEGITURAK ETA DIRU KONTUAK

Gobernuak abiatutako egitasmoaren atzean, nola ez, diru kontuak ere badaude. Tudgen kalkuluen arabera, Australiako ekialdeko hiriburuetako azpiegiturak pairatzen duten prezioak 15.000 milioi dolar australiarreko kostua (9.200 milioi euro) izan zuen iaz herrialdearentzat. Are gehiago, hemendik 2030. urtera, kostua 40.000 milioi dolar australiarreko iritsiko omen da, ministroak nabarmendu duenez.


«Pilaketa hau bai gure familientzat bai aberriarentzat izugarritzko desafioa da», ohartarazi du ministroak berriki emandako hitzaldi batean. «XXI. mende hasieran eraiki ziren azpiegiturak, batez ere Sydney eta Melbourne, ez dira gai ematen ari den hazkundeari aurre egiteko. Eta ez gara aurreikuspenen inguruan ari, egungo egoeraren inguruan baizik», gaineratu du “The Australian” egunkarian argitaratu duen artikulu batean. Arazoa, gainera, Brisbane hiriburua hartzen duen Queenslandeko hego-ekialdera ere hedatu omen da.

«Gure asmoa iritsi berriak Estatu eta herri txikietara eramatea da, baita zenbait urtez bertan gera daitezen beharrez ere», gaineratu du. Izan ere, Ekialdeko Australia moduko Estatuaren populazioa apenas hazi den azken urteotan, «eta bertakoak jendea jasotzeko irrikatan daude», nabarmendu du Tudgek. Australia



Populazioa lurraldeka

(milioika biztanle)



○ Hiri populatuena

● Oraindik etorkinak hartuko dituzten hiriak

GARA

Lerroon gainean,
Melbourne.
Taras Vyshnya- Getty Images

koa da neurriok errespetaraztea baldin eta baliabide izugarriak ez badira jartzen, bai neurriok inposatu ahal izateko eta baita errespetatzen ez dituztenak zigortzeko ere».

Australiak baditu jada etorkinak barnealdera bideratzeko bisatuak, baina Gobernuaren beraren datuen arabera, programon babespean iristen den hamarretik batek hiriburu handienetara jotzen du iritsi eta lehen hilabeteetan. Adibidez, 2016tik 2017ra bitartean, 7.766 “etorkin prestatu” iritsi ziren barnealdeko eskualdeetara, bada, migratzaileen erdiak Perth hirian geratu ziren, mendebaldeko hiri handienetara. Ondorioz, Perth kendu egingo dute Darwin, Adelaide, Canberra eta Hobart hiriekin batera orain artean osatzen zuen etorkinen iritsiera-puntuaren zerrendatik.

Zailtasunak zailtasun, planok aztertzeokan alde aurretik etorkinen eta errefuxiatuen arteko bereizketa egitea komeni da. Izan ere, egitasmoak “etorkin prestatuak” ditu helburu, ez itsasotik txalupatan heldutako errefuxiatuak. Azken horiek ez dute inolako harrerarik Australian kontserbadoreek duela bost urte bote-

barnetik jendea eskatzen ari dira, batez ere nekazaritza eremuetatik. 100.000 langile inguru behar dituzte uzta bilketa lanetan aritzeko. Eskainiko zaizkien soldatak beharra bezain handiak izango al dira? Horra hor gakoa. Gobernuak ez du zehaztu nola lortuko duten etorkinak leku horietan geratzera behartzea, baina, Tudgek aurreratu duenez, plan berriak bisa mugatuak ematea du helburu eta agintariekin bai-

menak kenduko dizkiete baldintzak betetzen ez dituztenei; hala, behin betiko bisak ala hiritartasuna eskatzeko aukera kenduko dizkiete. Horrez gain, hiri handietan azpiegitura handiak diruz hornitzeko neurriak eta zerbitzu publikoen deszentralizazioa ere aztertzen ari da Gobernuak.

NOLA BEHARTU GELDITZERA

Giza eskubideen errespetuari dagokionez egitasmoak sor-

tzen dituen zalantzak ahaztu gabe, planok gauzatzeko dau den zailtasunak nabarmen-tzen dituzten kritikak ere ugalduz doaz. Horren erakusle, Roman Quaadvlieg Australiako mugak zaintzen dituen polizia indarraren arduradun ohiak neurriok martxan jartzea «ia ezinezkoa» izango dela ohartarazi du. «Etorkinek aukerak eta ekipamenduak dituzten hirietara joko dute», azaldu du Twitterren. «Ezinez-

rea eskuratu zutenetik. Hartara, Canberrako Gobernuak aurrera daraman immigrazio politika gogorra aitzindari bilakatu da Europako ultraeskuinarentzat.

ETORKINEN HERRIALDEA

Australiak etorkin “prestatuak” betidanik hartu ditu, eta hartzen jarraitzen du. 7.741.220 kilometro karratu dituen kontinentea edo azpikontinentea –horretan ez ago adostasunik– munduko seigarren herrialde handiena da (alderatuz, Estatu frantsesak 643.801 kilometro ditu, eta, Estatu espainolak, 505.990), eta 25 milioi biztanle «baino» ez ditu. Are gehiago, Australiako historia etorkinek egin dute; etorkin “boluntarioek” baino gehiago, duela hiru mende Britainia Handiko ziega ilunetan usteltzen edota noiz urkatu zain zeuden milaka presok. Ordura arte egun Australia moduan ezagutzen den lurraldean aborigenak eta 1606an bertara iritsi zen Vaez de Torres marinel espainolaren abizenarekin bataiatutako itsasertzeko indigena melanesiarrek ziren nagusi. 750.000 inguru ziren orduan, egun baino gehiago (649.171, azken datuen arabera).

Datu izugarri horrek agerian uzten duen patu tragikoa orduan hasi zen. Torresen atzetik, beste asko heldu ziren Australia ezagutu eta konkistatzeko asmoz; Fernandez de Quiros portugaldarra (lurralde osoa zeharkatu zuen lehen europarra), frantsesak, ingelesak eta, batez ere, holandarrek.

160.000 PRESO KOLONIA BERRIRA

Nola ez, britainiar itsas inperioa zen garai hartan ahaltsuena eta 1788ko urtarrilaren 26an, 1.500 pertsona zeramatzan Britainia Handiko Itsas



Armadako flota herrialdera iritsi zen, baita lehen kolonia eratu ere (Australiako Eguna egun horretan ospatzen dute urtero). 1.500 pertsona horietatik, 750 presoak ziren.

Britainia Handian ez zen giro 1783ean Amerikako koloniak, egungo Ameriketako Estatu Batuak, galdu ondoren. Gainera, kartzelak presoak gainezka zeuden. Hori dela eta, bi arazoak arindu eta bide batez kontinente berri bat kolonizatzeke, presoak itsasontzitan bidaltzeari ekin zioten britainiarrek. Guztira 160.000 preso, gizon nahiz emakume, bidali zituzten Australiara 1788tik 1868ra bitartean.

Horien atzetik milaka eta milaka gizon eta emakume “aske” iritsi ziren Australiara. Gehienak europarrak ziren, britainiarrez aparte frantsesak, italiarrak, alemanak, poloniarrek, hungariarrak... Horiek lurralde berriak kolonizatzeari ekin zioten, abeltzaintza eta batez ere artzaintza landuz.

Ez zen horretan amaitu etorkinen jarioa. Britainia Handiak Txinaren aurka irabazi zuen Opioaren Gerraren ostean, bere mugak komertzioari zabaltzeko behar izan zizkion in-

perio ohiak eta, ondorioz, Australiako kolonietara lehen etorkin txinatarrak iritsi ziren 1842. urtean. Hala ere, benetako migrazioa 1850eko hamarkadan hasi zen, lehen urre me-atokiak aurkitzean. “Urrearen Sukarrak” 40.000 txinatar erakarri zituen eta txinatarrena, britainiarrenaren ondoren, bigarren talde etniko nagusia bilakatu zen.

AUSTRALIA ZURIA

1851an 430.000 biztanle izate-tik, hogeitun urtean 1,7 milioi izatera pasatu zen Australia. Ordurako hasiak ziren etnien arteko liskarrak, eta, batez ere, zurien xenofobia. “Urrearen Sukarrarekin” lehen auzo txinatarrak osatu ziren meatzari-tzarekin lotutako herrietan. Chinatown horiek herrien he-

Sydney hiria.
Getty Images

renak hartzen zituzten eta nonahi piztu ziren txinatarren aurkako pogromak, adibidez. 1857ko Buckland Riverrekoa. 1860an, berriz, nonahi izan ziren Txinaren aurkako martxak.

Ez zen izan txinatarrena australiar zuriek jomugan izan zuten giza talde bakarra. Gamelu gidari “afganiarrek” eta “uhartetarrek” ere laster pairatu zuten xenofobia. Aipatu gamelu gidariak ez ziren berez afganiar-rak, Ekialde Hurbileko hainbat herrialdetatik iritsitako etorkinak baizik (Egipto, Turkia, Iran, egungo India, Pakistan...). 1840ko hamarkadan eraman zituzten Australiara, herrialdearen barneko lurraldea Euro-patik eramandako zaldientzat lehorregia zelako. Gameluak, aitzitik, baldintza klimatiko astunetara ohituak, ondo egokitzen ziren lur haietara eta abereekin, derrigorrez, jabeak onartu behar izan zituzten.

Bigarren taldea Ozeano Bareko uhartetako etorkinek osatzen zuten, hau da, melanesiar-rak. «‘Uhartetarrak’ urre meatokietan eta batez ere azukre-kanabera plantazioetan lan egiteko eramaten zituzten Australiara. Lan gogorrenak

Sydney, Melbourne eta Quenslandeko Brisbane mundu osoan hazkunderik azkarrena duten hiriguneen artean daude. Perth, mendebaldean, bide beretik doa

Presoak eraman zituen Britainia Handiak Australia kolonizatzerako. Europak baino zabalera handiagoa duen 25 milioi biztanleko herrialdea, beraz, etorkinek osatu zuten



Aborigenak dira
Australiako jatorrizko
biztanleak. Bada,
britainiarrek lehen
kolonia eratu zutenean
baino gutxiago dira
egun.
GARA

egiteko, nola ez. Horretarako ez zuten kolono europarrik behar. Horrela bada, liskarrak berehala hasi ziren eta “uhartetarrek” eta gamelu gidari “afganiarrek” ezin izan zituzten beren kontrako erasoak saihestu.

ARRAZAKERIA «ZIENTIFIKOA»

Tentsioak gora egin zuen XIX. mende bukaeran, Europatik iritsitako arraza zuriaren us-tezko nagusitasuna defendatzen zuten teoriaren haritik. Australia zuriaren politika horrek migrazioaren murrizketa eragin zuen. Etorkin mota zehatz bat baino ez zen onartzen: europarra. Eta, gainera, prestatutakoa. Bi baldintzok betetzen zituztenak gutxiengo ziren, urruntasunagatik eta egin beharreko bidaia luzeagatik.

Haatik, bi neurri martxan jarri zituen Londresko metropoliak. Alde batetik, Asiako etorkinen iritsiera murriztu egin zuen. Ordurako Australian zeudenak ez zituela botako agindu arren, “uhartetarren” kasuan hitza ez zuten bete eta Ozeano Bareko irlalara deportatu zituzten. Era berean, Gobernuak europar etorkinak erakartzeko diru laguntzak eta lurrak eskaini zituen. Eskain-

tzok lan-beharren arabera handitu ala gutxitzen ziren.

INDEPENDENTZIAREKIN, OKERRAGO

Australiak independentzia lortu zuenean ez ziren gauzak aldatu. Ordura arte herrialdea sei koloniek osatzen zuten (Australia Mendebaldea eta Ekialdea, Hegoaldeko New Wales, Quennsland, Tasmania eta Victoria), eta bakoitzak ia-ia estatu bat zirudien, hori bai, britaniar koroaren menpe. Bakoitzak bere migrazio-politika berezia zuen eta egoera horrek bultzatu zuen, beste egitasmo batzuekin batera, gobernu nazionala eratzearen beharra. 1901eko urtarrilaren 1ean Australiako Mankomunitatea jaio zen. Estatu berriak, Commonwealth erakundearen barnean jarraitu zuen.

Independentziarekin etorkinen auziak okerrera egin zuen. Immigrazioa Oztopatzeko Legea baliatuta, Europatik ez zetozenei ez zieten uzten sartzen eta ordurako bertan zeudenei hizkuntza europar batean idaztea exijitzen zieten Australiatik ez kanporatzeko. Hain gogorra izan zen politika, ezen lehen aldiz Australiako biztanleriak behera egin zuen.

ETORKINEI ARNASA

1929ko Depresio Handiak eta batez ere Bigarren Mundu Gerrak hankaz gora jarri zuten Australia zuriari atxikitako legedi zorrotza. Hala, Australiak 1951eko Errefuxiatuaren Estatutaren Ituna sinatu zuen, Immigrazioa Oztopatzeko Legea bertan behera utzi zuen eta deportazioak arautu zituen.

Aurrerantzean ere prestakuntzak pisu handia izaten jarraitu zuen etorkinak erakartzeko orduan, baina arraza bezalako irizpideak desagertu egin ziren. Horrela bada, Kontinente Zaharraren zatiketaren haritik Europako ekialdetik iritsiko etorkinekin batera, milaka eta milaka migratzaile iritsi ziren Asiatik, Ekialde Hurbiletik eta Hego Amerikatik. Ordukoa da *boat people* ezizena, etorkin asko eta asko txalupatan iristen zirelako. 1945an 7,4 milioi biztanle ziren Australian; 1960an, 10,4 milioi.

HASPEREN BAT BAINO EZ

Irekiera garai labur baten ostean, 90eko hamarkadatik aurrera etorkinen auziari aurre egiteko bi planteamendu politiko nagusitzen hasi ziren. Batetik, kuotak murriztearen aldeko

eta multikulturalismoaren kontrako “One Australia Policy” liberalen proiektua, arraza berriro kontuan hartzea planteatzen duena. Bestea, laboristena, “Big Australia Project” izenekoa, kuotak handitzea defendatzen duena 2050ean herrialdea 35 milioi biztanlera iritsi dadin.

Bada, argi dago eztabaida lehenek irabazi dutela eta Australian gero eta begi okerragoz ikusten dituztela Asiatik heldutako etorkinak. Are gehiago, Ekialde Hurbilak pairatzen duen egora eta jihadisten atentatuak tarteko, australiarren erdiak musulmanen etorrera debekatzea defendatzen du.

Egoera horretan, nazioarteko egoera eta etorkinen eta asilo eskaeren gehitzea aitzakia hartuta, egoera erabat gaiztotu da Alderdi Kontserbadorea 2013. urtean boterera iritsi zenetik. Egun Australiak bertara iristen saiatzen diren errefuxiatu eta etorkinak milaka eta milaka kilometrora bidaltzen ditu, Nauru irlara eta Papua Ginea Berrira.

ERREFUXIATUAK, URRUN

Aurretik ere, Australiak bazuen etorkin eta errefuxiatuak urrutitik kudeatzeko grina. 60ko hamarkadan Thailandiara eta Indonesiara joaten ziren Australiako immigrazio-ofizialak errefuxiatuen prestakuntza eta ingeles maila aztertu eta horren arabera aukeraketa egitera.

2001. urtean, Australiako Gobernuak “Ozeano Bareko Irtentidea” jarri zuen martxan. Neurri horretan oinarrituta, itsasoz heldutako etorkin eta errefuxiatuak Australiatik kanpo mantentzeko “eskubidea” aldarrikatzen du Gobernuak. Ordukoak dira Nauru irlako lehen errefuxiatu zelaia.

Neurria 2007an zalantzan jarri bazen ere, ez zen atzera bota eta kontserbadoreek bere egin eta indartu egin zuten boterera iristean. 2013an, gainera, “Muga Subiranoen Operazioa” jarri zuen martxan Gobernuak, Armada baliatuz txalupak eta itsasontziak geldiarazi eta Australiako uretatik urruntzeko.

1.200 LAGUNETIK GORA ITOTA

“Muga Subiranoen Operazioa” 2013an martxan jarri zenetik, gutxienez 1.200 errefuxiatu itota hil dira itsasoan. Horrez gain, Australiara iristen saiatzen diren afganiar, arabiar nahiz tamil eta zeilandarrek bertatik 4.000 kilometrora dagoen Nauru irlara edota Papua Ginea Berriko Manus errefuxiatu eremura eramaten dituzte. Nazio Batuen Erakundeak, MSF Gobernu Kanpoko Erakundeak eta giza eskubideen aldeko taldeek errefuxiatuak egoera jasangaitzetan dituztela salatu dute. Etorkinak behin baino gehiago saiatu dira matxinatzen eta asko dira euren buruez beste egin edo automutilatzen direnak. Pentsa zer-nolakoa izango den egoera, Canberrako Gobernuak Chritsmas uharteko errefuxiatu eremua itxi egin behar izan duela. Manusekoa ere ixtear omen dago.

Keinuak keinu, bere horretan dirau errefuxiatuak ez hartzeko politikak. Australiak errefuxiatu estatusa onartzen badie ere, Naurun edo Papua Ginea Berrian ditu edota Kanbodia bezalako herrialdeetara bidaltzen ditu, horretarako bertako gobernuarekin itunak sinatuz. Bost axola herrialdeotan nagusi den giza eskubideekiko errespetu falta.

Britainia Handiko ziegatan usteltzen ari ziren presoek eratu zuten Australia. Gerora,



Xenofobia ez da inolaz ere kontu berria Australian. «Australia zuriaren» historian oso ohikoak izan dira gutxiengo etnikoen aurkako jazarpenen politikak

Gobernu kontserbadoreak muturreraino eramán du auzia eta ez du txalupatan hurbiltzen den errefuxiatu onartzen. Inguruko uharteetan ditu errefuxiatu guneetan

kolonoek bertako aborigenak suntsitu egin zituzten. Egun ere Australian bizi direnen %27 kanpoan jaiotakoak dira, eta beste horrenbesteren gurasoak ere kanpotatik heldu ziren. Ez da ez datu makala. Etorkin gehien hartzen dituen herrialdean, Ameriketako Estatu Batuetan, etorkinak populazioaren %13 dira, Australian baino 14 puntu gutxiago. 2015an etorkin gehien hartu zituen bederatzigarren herrialdea izan zen Australia eta urtero 180 herrialdeetako jendea bihurtzen da australiar.

Kontrolpean iritsitako errefuxiatuak ere hartzen ditu Australiak, 12.000 urtero, baina ez du inolaz ere itsasotik etorritako errefuxiatu nahi. Orain etorkin “prestatuei” ere baldintzak jarri nahi dizkie. Antolakuntza kontua dela argudiatzen du Gobernuak eta egia da Australia bezalako herrialde batek aitzakia ona duela kostaldeko hirien eta ia inor bizi ez den barnealde izugarriaren arteko aldea kontuan hartuta. Eztabaida nagusia, argi dago, askoz ere korapilatsua goa da: herrialdeek immigrazioa arautzeko eskubiderik ote duten. Eztabaidak eztabaida, baina, Australiako kasuan galderra bat geratzen da airean; ez ote gauden, Nauru eta Manusko errefuxiatu guneetan begi bistan geratzen den bezala, Australia zuriaren iluntasunaren aurrean. Etorkinek osatu zuten Estatua bere iragana, eta batez ere bere etorkizuna, ukatzera daraman iluntasuna.

Australian eremu izugarriak hartzen dituen basamortuaren irudi bat.
Getty Images

ITZALA BEREZKOA DU

Michelle Obamaren memoriek piztutako ikusmina, idazlearen beraren tamainakoa

📁 JENDARTEA / ibizkarguenaga@gara.net

Amerikako Estatu Batuetako presidentearen emaztea izateagatik ezagutu genuen gehienok Michelle Robinson Obama (Chicago, 1964ko urtarrilaren 17a), baina senarraren karguak itzal luzea izanagatik, berak argi erakutsi zuen ez zela inoren eranskin izateko jaio, bere gerizpea ere tamainakoa dela.

Princeton eta Harvard unibertsitate prestigiatsuetan ikasitako abokatua da Michelle, baina Chicagoko langile giroan hazi eta hezi zen, eta bere arbasoetako bat Jim Smith Hego Carolinako esklaboa da. Badauki, beraz, zer den aurrera ateratzeko lan egitea, borrokatzea. Eta horregatik ez du inoiz Barack bikotekidearen karismaren adarretan habiarik egin. Orain, aterpea bezainbeste kaiola den Etxe Zuria utzi eta bi urtera, memoriak idatzi ditu, inor epel ez uzteko asmoz.

“Becoming” deitzen da aste honetan salgai jarri den liburua, eta dagoeneko hogeita zortzi hizkuntzatarara itzuli du. Izan ere, mundu osoan da ezagun, eta jende askorentzat eredu ere bada. Horren guztia- ren jakitun, Michelle Obamak edozein rock izarrek amestuko lukeen bira antolatu du, liburua aurkezteko, eta hitzaldiak emango ditu AEBetako eta Britainia Handiko zenbait estadio handitan. Bide horretan lagun izango ditu aski ezagunak diren Chimamanda Ngozi idazlea eta Reese Witherspoon eta Sarah Jessica Parker aktoreak, beste askoren artean.

Ikusmina norainokoa den neurtzeko, nahikoa da aipatzea sarrerak erabat agortu dira leku askotan, eta ez da izan, inondik ere, salneurria

merkea zelako, 30 eta 3.000 dolar artean ordaindu baitutuzte bera zuzenean ikusteko.

Nola ez, lehen hitzaldia jaio-terrian egin zuen, Chicagon, iragan asteazkenean, eta esan gabe doa arrakasta izan zuela. Saio horretan Oprah Winfrey ezaguna izan zuen Michellek bidelagun, hain zuzen, askok AEBetako hurrengo presidente izateko hautagai gisa ikusten duten telebistako aurkezlea.

Hala ere, aurkezpen-bira apartekoa izan arren, liburua

oso intimoa da, barrura begirakoa. Batez ere, “lehen andrea” eskema klasikoa gainditzeko ahalegina egiten du usu “lehen andre” gisa aurkeztu duten emakumea. Horrekin batera, bere lan-esparruan eta familiarekin izandako esperimentuak nabarmentzen ditu, bizipen horiek bereak bakarrik izanagatik beste askok izandakoen antzekoak diren ustean.

Edonola ere, liburuaren berri izan eta berehala hedabide askok Michelle Obamak egun-

go presidente Donald Trumpi buruz esaten dituenak ekarri dituzte beren lerroburoetara. Idazlana intimoa izan daitekeelako, bai, baina berak esaten dituenak mundu guztian errepelikak izan ditzakeen lurrikarak sortzeko gaitasuna duela-ko. Jakina, Etxe Zuriaren maizter berriarentzat ez du hitz goxorik erabili. Sorpresa- rako tarterik ez du utzi. «Gau batzuetan ezin nuen lo egin, jazotakoagatik haserre», onar- tzen du pasarte batetan, New Yorkeko handikiak egindakoak gogora ekarriz. Izan ere, Michelle Obamaren aburuz, «es- tugarria izan da egungo presi- denteak estatubatuar asko beren buruaz zalantza izatera eramanez dituela ikustea, beste- enganako zalantzak izatera eta beldurra pairatzera nola era- man dituen». Eta bere buruari galdetzen dio ea «inoiz hon- doa joko ote dugun».

Michellek «misogino» eta gezurti gisa ikusten du Trump, eta gogor salatzen du 2011an Barack Obama AEBetan jaio ez zela zabaldu izana, zurrumu- rru faltsu horrek herrialdeko sektore arrazistak aztoratu baitzituen. «Trumpek, bere iradokizun zalapartatsu eta ar- duragabeekin, nire familiaren segurtasuna arriskuan jarri zuen. Eta hori ez diot inoiz barkatuko», dio zorrotz.

Dena den, memorien gai- nontzeko atalak polemikari iz- kin egiten diote, eta, besteren artean, AEBetako presidente baten emazte izateak dakarren pisua jorratzen du. «Inoiz ez nuen pentsatu ardura hori erraza edo xarmagarria izango zenik. ‘Lehen’ edo ‘beltza’ kali- fikatzailerak jasaten dituen inork ez luke pentsatuko», azaltzen du, gaineratuz bera «emakumea, beltza eta indar- tsua» zela, eta horrek, jende mota batentzat, «haserretua» esan nahi zuela. «Hori beste klixek kaltegarri bat zen, gu- txiengoetako emakumeak baztertzeko betidanik erabili dena», salatzen du. Estereoti- po arrazista horrek sumin- tzen zuen, baina «amarruan» ez erortzea erabaki zuen, bu- rua beti altu mantentzea, eta hortik heldu zen 2016ko kan- painan ezagun egin zen leloa: “Beraiek maila apaltzen dute- nean, guk igo egiten dugu”.

Arrazak, klase sozialak, ma- txismoak eta hezkuntzak sor- tzen dituen bereizketak luze jorratzen ditu Michelle Oba- mak liburuan, eta hautsak ha- rrotuko ditu 2020ko hautes- kundeetarako hautagaia bilatzen ari den Alderdi De- mokratik. Berak dio ez dela inoiz kargu publiko baterako aurkeztuko, baina zer diote gurtzen duten horiek?



Oprah Winfrey eta Michelle Obama, aste honetan Chicagon emandako hitzaldian.

Jim YOUNG | AFP



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Sexu jazarpena fisioterapian

Agian entzun duzue duela aste gutxi txiolandian izandako oldarraldiaren berri. #MeTooFisio traolpean, lanean jasan behar izaten duten jazarpenaren berri ematen hasi ziren gure emakumezko lankideak, eta gehienok aho bete hortz geratu ginen: ez baikenuen uste arazoa hain larria zenik. Baina zakarrontziaren tapajaso genuenean, barruko kiratsa jasanezina zen.

Lehen kolpea Sara Waliño azkoitiarrak eman zuen irailean, sare sozialetan bere kontsultan gertatu zitzaiona salatzean (polizia etxean ez ziotelako salaketarik onartu). Urriari, Galiziako eta Andaluziako lankide bik gaiari heldu eta #MeTooFisio traola proposatu zuten, espainierazko Twitter sare soziala horrelako lekukotasunez betez:

- «'Amaiera zoriontsua' eskatu didaten? Askotan. Ni 'ukitzen' saiatu diren? Bai. Emakume izatearengatik gutxietsi nauten? Ezin konta ahala bider. Baina txarrena hau izan zen: eliteko kirol talde batean lan egiteko elkarrikeria batean, taldeko mediku famatuaren hitzak. 'Zure mutil lagunari ez al dio ardura, zuk gizon biluziz betetako aldagela batean lan egiteak? Zer egingo duzu mutil guztiak zakila kanpoan ikustean?'» (@AnaCarrS).

- «Ez dakit nondik hasi... Errua nirea zela sentitzen nuen, neuri bakarrik gertatzen baitzitzaidan. Orain konturatu naiz ez zela horrela» (@mataronina33).

«Aduktoreak tratatzen, pazienteari zakila tentatu zaio. Fisioterapeuta: 'Baztertu hori, mesedez; lanean ari naiz'. Pazientea: 'Barkatu, nahi gabe izan da'. Fisioterapeuta: 'OK'» (@FisioImprudente).

- «Lankide bat deitu zuten etxean masaje saio baterako. Pazientea masturbatu egin behar izan zuen handik atera



#MeTooFisio kanpainak testigantza gogorak bildu ditu. GAUR8

ahal izateko, 'zerbitzua ordainduta baitzuen'» (@verdemanzanna).

- «Gelatik atera nintzen, gernu-ihesa zuen paziente baten pixa garbitzeko. Bidea itxi zenidan, ileetatik helduz: 'Ui, horrelako ile motzarekin ezingo dizut burua ongi eutsi, zuputzen didazunean, kar-kar-kar'. Tamalez ez nizun barrabiletan ostikorik eman» (@minaharker20_12).

Oka egiteko gogoari eutsi diozue? Ez duzue meritugutxi. Horrelakoak irakurrita, asko damu gara lehenago erreakzionatu ez izanaz. Nik behintzat, gogoan dut gure kontsultan, bizpahiru bider, lankideren bat laguntza eske etorri izana, pazienteren bat tratatzerakoan aurrean egoteko portaera desegokia zuelako. Kasurik txarrenean, pa-

zientea neuk hartuko nuen, baina ez genuen (ez jazarritako lankideak ezta neuk ere) hori baino neurri zorrotzagorik inoiz planteatu. Ez baikenuen gauza larritzat hartu, gauza esporadikotzat baino. Baina orain denok ikusi dugu ez dela salbuespena, ohiko eraso baino; eta kasua berriro gertatuz gero, pazientea kanporatu (eta salatu) behar dugula.

Nola onartu dugu egoera hori orain arte? Nekez uler daiteke; agian emakumea gutxiestea eta objektu gisa tratatzea guztiz barneratuta dagoelako gure gizartean, gizonen zein emakumeen artean. Dena den, zorionez, oldarraldi honek begiak ireki dizkigu eta dagoeneko gaia elkargo profesional guztien agendan da. Eta azpimarratzeko datua: egoerok fisioterapeuta oso gazteek jasaten dituzte eskuarki, hau da, karrera amaitu berri duten neskek. Nolabait, jazarleek babesgabeago ikusten dituzte, eta, egoera horiei aurre egiteko errekurtsioak edo adorea oraindik ez dituztenez, haiek aukeratzten dituzte biktimatzat. Badugu, beraz, babestu beharreko kolektibo zehatza. •

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Euskal Herria eta Katalunia, aitzindari izateko aukeran

gandean orriotan Arnaldo Otegik proposatutakoa zein asteazkenean Kursaaletan Quim Torrak esandakoak entzunda, urtebetea Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean elkarrekiko begirada nabarmen aldatu dela bistan da. Orduan orri honetan bertan nire harridura bikoitza aitortu nuen. Oraindik irailean ginela, Bartzelonara *procés*-aren berri ematera joaten hastean, batekin eta bestearekin hizketan sumatu nuen Euskal Herriatik borondate ononez zetozen irakurketa eta aholkuen aurrean nola baiteko itsu-gorkeria. Gure uste apalean, hemen hama markada luzez egindako borrokak Estatuaren egitura, jokamolde eta funtzionamenduaren ezagutza zehatza ematen zigun, baina hori beraiei helarazi nahi genien, berezko duten *seny* horrekin eta harrokeriarik gabe baina harro, hemengo adibidea ez zela beraientzako baliogarria ematen ziguten aditzera. Astebueretan Euskal Herrira bueltan, ordea, txanponaren beste aldea topatzen genuen. Egia da Bilbon hiru manifestazio handi eta beste hainbat ekimen ere egin zirela, baina, arrazoi ezberdinak tarteko, Katalunian egosten ari zenaren tamainako jarrierarik ez genuen aurkitu, isla apal bat baino ez. Zenbait inkestak frogatuko zuten gero Kataluniako gorabeherekiko axolagabekeria zein kezka maila nabarmenak zirela gure herrian, eta hemen bai nabaritu nuela harrokeria puntu bat. Independentziaren aldekoen artean “inbidia osasuntsua” da nagusitu zen kontzeptua, inbidia osasuntsurik izan ez arren.

Elkarri nahiko bizkarra emanda ziren bi herriak elkarri begira jartzen hasi dira orain. Maila politikoan modako ideia baino gehiago dira Otegik, Torrak eta abarrek botatakoak; eta, alor antierrepresiboan, ekimen bakanak baino gehiago dira Kataluniako presoen eta Altsasuko presoen senideen arteko Tolosako mahai-ingurua edota espetxean gaixorik diren euskal herritaren

arren sendagileak Kataluniara gonbidatu berri izana, kartzelari nola aurre egin ulertzeko Euskal Herria baino adibide hoberik ez dela egiaztatu dutelako. Politikafikzioa ariketa hutsala den arren, zer gertatuko zen iazko urriaren 1ean, Katalunian ez ezik Euskal Herrian ere hautetsontziak jarri izan balira, nolabait arazoa ez zela Katalunia, Estatu espainola baizik, nazioarteari erakutsiz? Eta 1975an Katalunian Euskal Herrian Francoren sistema osoa lurperatzeko bezainbeste indar pilatu izan balitz? Eta Estatu frantsesean, Euskal Herria, Korsika, Kanaky eta abarren arteko balizko elkarlanak ez alioke Parisi zailduko nazio gatazka guztiak orain arte bezain eroso kudeatzea?

Globalizazioaren tendentzia geldiezinari Estatuak atera diote etekin handiagoa, nazio txikien gainetik (horretaz ondorio batzuk atera zituen ETak berak, az-

Internazionalismoaren aldarria, herrien arteko elkartasuna eta samurtasuna lotzen dituen, motz gelditu da. Aurrera egiteko elkarlana, elkarborroka, beharko da

ken elkarriketan ageri denez). Internazionalismoaren aldarri klasikoa, herrien arteko elkartasuna eta samurtasuna lotzen dituen, motz gelditu da XXI. mende honetan. Elkartasunetik haratago doan elkarlana, are gehiago elkarborroka, landu beharko da Estatu handien –eta Estatuak osaturiko egitura handiagoen– gainetik pasa behar bada. Oso zaila dela irudikatzeko, herri txikien barruan bertan dauden estrategiari buruzko desadostasunen gertuko adibidea ematen digute Urkullu-Otegiren edota Junqueras-Puigdemonten arteko liskarrek. Baina elkarborroka hori zaila bezain ezinbestekoa zaie Europako herriei. Eta bide horretan Euskal Herriaren eta Kataluniaren artekoa aitzindari litzateke. •

ROKODROMOAK ITXITA

Gasteizko udal rokodromoak udatik daude itxita esleitu gabe geratu ostean

Uztailaren 27an Gasteizko udal rokodromoen gestioa esleitu gabe geratu zen. Egoera ez zen berria, iaz berdina gertatu baitzen, baina irailean Gorka Urtaranen Gobernuak aurrekaririk ez duen erabakia hartu zuen: rokodromoak ixtea. Ordutik hirian dauden rokodromo publikoetan lan egiten duten lagunak egoera larrian daude, konponbide bat itxaroten, eskalatzaileak bezalaxe.

Azken urteetan Arabako Rokodromo Teknikariak (ART) kooperatibak eraman du Ariznabarra eta Hegoaldeko rokodromo kudeaketa, baina Salburuko gizarte etxeko rokodromoaren irekierak «panora-

 **JENDARTEA** / Ion Salgado

Gasteizko eskalatzaileek ezin dute udal rokodromoetan eskalatu. Itxita daude. Udalak hala erabaki zuen udan, rokodromo kudeaketa esleitu gabe geratu zenean. Kirol zinegotziak baldintza-agiri berria aurkeztu du, eta urtarilean rokodromoak irekiko direla esan du, baina itxaronaldia luzeegia izaten ari da langileentzako.

ma berri bat» ekarri zuen. Hala azaldu du Ander Agirre kooperatibako kideak, Gasteizko Udalak udan proposatuko kontratua bideragarria ez zela nabarmentzen duenak.

Udalak 140.800 euroko kontratua proposatu zuen, hiru rokodromo gestioa aurrera

Langileek hainbat mobilizazio egin dituzte bizi duten egoera salatzeko.
Endika PORTILLO | FOKU

eramateko. Kooperatibak, berriz, 173.553 euroko eskaintza egin zuen. «Gure kooperatibak beti adierazi du gure gogoa zerbitzua ematea dela», gaineratu du Agirrek, eta beste enpresarik ez zela esleipenera aurkeztu ohartarazi du Udalak aurkeztutako baldintza-agiri

berriari buruz hitz egin baino lehen. Agirrek azaldu duenez, urrian iragarritako baldintza-agiriak antzekotasun ugari ditu udan atera zenarekin. ART kooperatibako kidearen ustez, Gasteizko Udalak «kontratua zatitu egin du, beste enpresa batzuentzako tentagarri egiteko. Uste dugu, baina, kontratu berria ez dela ona, kudeaketa zuzena zaildu egiten duelako». Horrelako kontratu batek langileen subrogazioa zail deza-keela ere nabarmendu du.

Urriaren 30an Estibaliz Canto Gasteizko Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotziak emandako datuen arabera, «kontratu berria bi multzotan banatu da entitate gehiago erakartzearen zein entitate bakarrak kontratu osora aurkeztetik izan ez dezan». Lehen



multzoak erabilera librearekin zerikusia du, eta horri dagozkion mantentze-lanekin; eta bigarrenak udal ikastaroen kudeaketa jasotzen du.

Halaber, kontratu berriak instalazioak irekitzeko orduak zehazten ditu, eta orduko prezioak ere ezartzen ditu. Zentzu horretan, baldintza-agiri berrian prezioa pixka bat igo du Udalak, 19,85 eurotik 22,97 eurora. Dena den, entitate adjudikaziodunak oinarritzko mantentze-lanak egin beharko ditu, eta berrikuntza nahiz inbertsio premiak identifikatzeko txostenak landu.

ESK SINDIKATUA

Julio Sanchez ESK sindikatuko kideak aurkeztutako baldintza-agiria sei hilabeterako soilik dela nabarmendu du, eta ez duela oinarritzko arazoa konpontzen. «Lehen bi rokodromo zeuden eta langile kopuru zehatz batek egiten zuten lan. Bada, baldintza-agiri berrian, langile gutxiagorentzako lana eskaintzen da. Jende gutxiagorekin hiru rokodromo kudeaketa aurrera eraman nahi du Udalak», salatu du.

Datu aipagarri bat ere eman du Sanchezek: baldintza-agirian rokodromoak 4.842 ordu egongo direla irekita azaltzen da, baina, «orain arteko ordutegia kontuan hartuta, urtarritik uztaileira 7.000 ordu egongo lirateke irekita hiriko rokodromo publikoak». ESK sindikatuko kideak gaineratu duenez, «proposatutako ordu kopurua ez da nahikoa orain arte rokodromoetan lan egin duten langileen lanpostuak bermatzeko». Langileen kaleratzeak ez dituela Udalak ordainduko ere nabarmendu du.

Sindikatuak langileen kezak planteatu dizkio Estibaliz Cantok zinegotziari, baina, Sanche-

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL ZINEGOTZIA, EMAKIDA BAT EMATEAREN ALDE

Gasteizko Udalak uko egin dio GAUR8ren eskaerari, eta Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estibaliz Cantok ez ditu erantzun nahi izan komunikabide honetatik egin nahi genizkion galderak. Hori bai, urrian egindako agerraldi batean rokodromo kudeaketari buruz hitz egin zuen Cantok, eta Udalak erabakitako itxiera babestu zuen. «Esan denaren kontra, aurkeztu zen enpresa bakarrak eragotzi egin zuen juridikoki kontratua hari ematea, eskatutako orduak gainditu zituztelako». Adierazi zuenez, «kontuan izan behar da Udalak ezin dituela baldintza-agiriak enpresekin negoziatu, eta 2.000 ordu gehiago fakturatu nahi izatea zilegi den arren, ezin da exijitu, bezeroa Udala baita». Egun martxan jarri den esleipenean fakturatutako orduaren prezioa 2 euroan igo dutela adierazi zuen.

«Bestetik, zerbitzua pixkanaka pribatizatzea leporatu digute, eta hori ez da egia, kontratu eredu honek 15 urte baitaramatza indarrean. Nolanahi ere, etorkizunean emakida bat ematea da gure


asmoa, kudeaketa hobea izango baita horrela, jende gehiagorengana iritsiko da», gaineratu zuen zinegotziak. Udalak eskalada defendatzen duela ere nabarmendu zuen Cantok: «Udal Gobernu honek eskaladaren aldeko apustua egiten du, eta horren froga da hirugarren rokodromo bat eraiki izana. Eskaladari ikusgarritasun handiago emateko eta jende gehiago erakartzeko egiten ari garen ahalegina ere hor dago».

«Udalarentzat ez da atsegina izan zerbitzua itxita edukitzea, baina baldintza-agiri honekin berriro segurtasunaren alde egin dugu; inguruotako rokodromo seguruenak izatearen alde, orduak era planifikatuan handitzearen alde eta orduko prezioa handitzearen alde. Zerbitzua urtarritik irekiko da», azaldu zuen Cantok. Gogoratu beharra dago orduko prezioaren igoera txikia izan dela, 19,95 eurotik 22,97 eurora. Gainera, kontuan hartu behar da aurrerantzean hiru rokodromo kudeatu beharko direla, ez bi orain artean bezala.

Eskalatzaile bat, egun itxita dagoen Ariznabarrako rokodromoan.
Juanan RUIZ | FOKU

zek dioenez, Udal Gobernuak ez ditu aintzat hartu. «Gobernu Batzarrak urriaren 26an onartu zuen baldintza-agiria, eta gu zinegotziarekin urriaren 25ean bildu ginen. Gauza ugariri buruz hitz egin genuen, baina, logikoa denez, proposatutako neurriak ez ziren sartu hurrengo egunean bertan onartutako baldintza-agirian», nabarmendu du.

ESK sindikatuak ez du uste zerbitzua pribatizatuko denik, langileek salatu izan duten bezala, baina zurrumurruak egon badaudela aitortu du. «Baldintza-agiria mahi gainean jarri baino lehen, zerbitzua ustiatzeko emakida batez hitz egin zuen pertsona bakarra zinegotzia bera izan zen, eta emakida bat ematea pribatizazioa dakarren formula bat erabiltzea da», azaldu zuen.



Egoera horretara ez heltzeko, ESK sindikatuak langileekin batera mobilizazioak deitzen jarraituko du, azken hilabeteetan egin bezala. Kaleak rokodromo bilakatuz, besteak beste. «Udal rokodromoetan ezin badugu eskalatu, kaletan eskalatuko dugu», nabarmendu du Sanchezek, eta kirol honen garrantzia kaleetan ikustea inportantea dela gaineratu du, «nahiz eta mahi gainean baldintza-agiri berri bat egon».

ESKALATZAILEAK SUTAN

Egindako ekimenetan erabiltzaileen babes osoa izan dute langileek. Horren erakusle, urriaren 16an Gasteizko Eskalatzaileak Sutan plataforma sortu zuten. Egun horretan zabaldutako agirian salatzen denez, Udal Gobernuak hartutako erabakiaren ondorioz, «bat-batean, milaka gasteiztar eskalada praktikatu gabe geratu gara». Oharrean honakoa ere nabarmentzen da: «Salburuko gizarte etxean eraikitako rokodromo berriak itxita jarraitzen du, noiz irekiko den, eta nork edo nola kudeatuko den ez dakigula. Udalaren axolagabekeria eta planifikazio eza islatzen du horrek».

Gasteizko Udalak «rokodromoetako langileen eskubideak urratu» dituela ere salatzen du plataformak, langilerik gabe ezin dela eskalada praktikatu ohartaraziz. «Nork imajinatuko luke igerileku bar soroslerik gabe? Eskaladari dagokionez, arrisku kirola izanik, segurtasuna bereiziki garrantzitsua da gure kirola praktikatzeko orduan. Udalak bermatu behar du instalazio publikoetan istripurik ez egotea», diote. Lehen eta bigarren mailako erabiltzaileak daudela ere kritikatzten dute. Euskal Mendizale Federazioak Gasteizen txapelketa bat




egin nahi zuela baina azkenean bertan behera utzi behar izan zuela ere gogoratu dute.

Egoera ikusita, Gasteizko Eskalatzaileak Sutan plataformak «kirol gutxituak indartzeko politika integrala» eskatzen du, eta «irtenbide azkarra» proposatu du: «Rokodromoen irekiera eta langileei orain arteko eskubideak mantendu edota hobetuko dizkieten bermea». «Argi dugu rokodromo batean zerbitzua pareta estati-

Ezkerrean, Estibaliz Canto Gasteizko Hezkuntza, Kultura eta Kirol zinegotzia; eskuinean, Adrian Donnay Gasteizko Eskalatzaileak Sutan plataformako kidea. Juanan RUIZ-Endika PORTILLO I FOKU

Gasteizko Eskalatzaileak Sutan plataformak azaldu duenez, «rokodromoan auzia Kirol eta Kultura Sailean pixkanaka ematen ari den pribatizazioaren adierazgarri besterik ez da»

Juanito Oiarzabalek, Pou anaiek eta Irati Andak ere salatu dute bizitzan ari den egoera: «Instalazioak irekitzeko kudeaketa lanak azkartzeko eskatzen diogu Gorka Urtarani»



ko bat izatetik haratago doala. Ezinbestekoa da mantenua, garbiketa lanak, segurtasuna eta eskaladaren oinarritzko irakaskuntza bermatuko dituen lantalde bat».

Amaitzeko, zerbitzu publikoak herritar guztien diruarekin mantentzen direla gogoratzten diote eskalatzaileek Udalari, «bereziki elitezko mailetan aritzen ez garen oinarritzko kirolarien diruarekin. Hortaz, horrenbeste Iron Man, Final Four edo txapelketa nagusitan zentratu beharrean, Udalak aurten baztertutako eskolaz kanpoko jardueretan dabiltzan umeengan, eskalada aisialdi duten gazteengan, kirol berri bat ezagutu nahi duten helduengan, behar bereziak dituzten pertsonengan pentsatu beharko luke».

Zentzu horretan, Adrian Donnay plataformako kideak rokodromoan itxiera haurren

artean izaten ari den eragina salatu du. Izan ere, «ume eta neska askok» egiten dute eskalada Gasteizen eta ikasturte honetan ez dute rokodromora joaterik izan, «eskaladarekin duten lotura apurtuz». Hala-ber, eskalatzaileek ezin izan dute entrenatu azken hilabeteetan, eta haien arteko harremanetan ere eragiten du itxierak, Gasteizko rokodromoak topagune baitira eskalada praktikatzten dutenentzako.

Orain artean eskalatzaileek bi mobilizazio egin dituzte, baita Ariznabarra eta Hegoaldeko rokodromoan okupazio sinbolikoak ere. Donnayk aurreratu duenez, «oraingoz» kontratua- rekin zer gertatzen den jakin arte itxarongo dute mobilizazio gehiago deitu aurretik. Langileak, kooperatibako kideak eta erabiltzaileak ere adi egongo dira, kalitatezko zerbitzu bat bermatzeko borrokatzeko prest.


*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:





Idoia ZABALETA | FOKU

IKUSMIRA

OHITURAK

Euskaraldiak ohitura aldaketa eragin nahi du. Hizkuntza ohituren aldaketa. Ohitura asko aldatu beharra dago, koherentziaz besterik ez bada ere. Gure aho biziak jaulkitzen dituenak eta gure belarri prestak -ez beti pres-tuak- onartzen dituenak gauzatzea errazte aldera. Nafarroako Parlamentuak, beste hainbat instituziok beza-la, bat egin du Euskaraldia ekimenarekin. Eta hori ohitura aldaketa da. Egiari zor, aspaldi ez dela arte Nafarro-ako instituzio gehienak kontrolpean zituztenen artean ez da ez “ahobizirik” ez “belarriprestik” falta izan. Berritsu ugari, euskararen arbuio bizia sustatzeko; kuxkuxeroak ere aunitz, euskarari erasotzeko prest.

Errioxako Komunitatean ez dute Euskaraldiarekin bat egin. Ondo... bost axola, alegia. Edonola ere, lekutan dago ohitura aldaketa. Bertako PSOEk Autonomia Estatutuaren erreformarako aurkeztu zituen zuzenketetan zeuden euskararen aipamenak kendu egin ditu. PPK ohartarazi zienez, horrela hasi zen Nafarroa ere, ohitura txarrei heltzen, alegia. Eta orain ohitura zahar haiei eusten tematuta. Xabier Izaga Gonzalez

XABOIAREN USAINA

Xaboiak denda, xaboi
konbentzionalen aurkako
erresistentziaren ikur

 **JENDARTEA** / Ibai Azparren Eguillor

Emakume batek mukiak kendu ditu Iruñeko Mercaderes kaleko Xaboiak dendara sartu baino lehen. «Marranta baduzu ez da dendara etortzeko egunik egokiena», ohartarazi dio Reyes Gutierrezek. Duela zortzi urte hartu zuen xaboi naturalak saltzen dituen dendaren ardura, eta, bertan, usaimena da gidaririk hoberena.

Permufeak” Patrick Süskind idazle alemaniarren obrak irakurlea usainen erreinu iheskorra eramaten badu, Xaboiak dendak, ikara eta ameskeriazko mundu horretatik aldentuz, gauza bera egiten du bertara gerturatzen diren guztiekin. Agian, eleberriko Grenouille protagonista umezurtzak, hainbestetan hazametik baztertu zutena «umetxo usaina ez izateagatik», Xaboiak dendako produktuak probatu izan balitu, «azala

umetxo baten ipurdia bezala» zuela geratuko zen behintzat. Reyes Gutierrez Xaboiak dendako arduradunak azaldu bezala, «sartzerakoan pizten den lehenengo zentzumena usaina da». Aurreko jabeak denda utzi zuenean, ordura arte langile gisa zegoen emakumeak dendaren ardura hartzea erabaki zuen, langabezian geratzera baitzioen: «Beste lan bat bilatzeko indarrik gabe nengoan, eta, gau zoro batean, aurrera jarraitzea erabaki nuen». Zortzi urte eta gero, Iruñeko Mercaderes kaleko Xaboiak denda eramaten du,

denda «txiki, ikusgarri eta modernoa, antzina erabiltzen zirenen pareko produktu eraberrituez betea», zehaztu du. Etxerako aromak, komune-ko-ponpak, kosmetika naturala, leko gaiak, bainu-gatzak, masajeak egiteko argizariak edo olio labaingarriak dira, besteak beste, bertan aurki daitezkeen produktuak. Hala ere, «dendako produktu kutuna xaboi da», baieztatu du Gutierrezek. Eta ez da harritzekoa, sartzean kolore eta forma guztietako xaboiak antzeman baitaitezke. «Kolore jakineko xaboiak bila etortzen da jende asko, etxeko xaboi-ontziaren ondoan ongi gera dadin», aitortu du. Hala eta guztiz ere, xaboiak efektu eta propietateak dira bezeroek nabarmentzen dituztenak; ontziratutako gabeko xaboi ekologikoak, biodegradagarriak, hidratatzaileak, artisau-xaboiak... bilatzen dituzte. Xaboiak ez ditu Gutierrezek egiten, «bakarrik bainago dendan eta ez bainintzateke iritsiko». Zaragozako De Una Pieza dendatik ekartzen ditu xaboi gehienak, pH neutroak. «Supermerkatuan saltzen diren xaboi konbentzionalek

Reyes Gutierrez, Xaboiak
dendaren jabea.
Idoia ZABALETA | FOKU



MODA KONTUA: KALAMUAREN ETA KLEOPATRAREN ARTEAN

«Artisau-pastelgilea ere badaukate Zaragozako De una Pieza dendan», azaldu du Gutierrezek, karite gantzarekin eginiko *muffin* bat hartzen duen artean. Hipsterismoak ekarritako modak ere iritsi dira xaboiak mundura. «Ezin dira jan, bainuontzian sartu eta azalean gelditzen diren tantatxoak igurtzi behar dira». Baina xaboiarekin egiten diren “madalenok” ez dira dendan saltzen diren produktu atipiko bereizgarrienak. Gutierrezek asteme esnearekiko debozioa partekatzen du Kleopatrarekin. «Lehen mosketa arrosa modan zegoen, gero aloe verak ordezkatu zuen, eta, orain, asteme esneak. Moda kontua da», argitu du. Hala ere, postmodernismoa uxatuz, K.a. 4000. urtean Txinan erabiltzen zen kalamu olioak moda-modan jarraitzen du egun. Gutierrezek azaldutakoaren arabera, «porru baten efektu lasaigarria dauka baina buruko txoriak kenduta». Produktu garestiena da, baina urtebete irauten du, «ez delako egunero erabiltzen den produktu horietako bat».



Karite gantzarekin egindako «muffin»-ak. Idoia ZABALETA | FOKU



pHa dute, eta, dutxa batetik bestera, ez diogu leheneratze-ko denborarik ematen azalari», azaldu du. Hori da, bere iritziz, bere dendan eta supermerkatu batean erostearen arteko desberdintasun nagusia. «Bueno, hori eta nik baino azalpen gehiagorik ematen dituen beste inor ez dagoela!», gaineratu du, txantxetan.

Gutierrezek saltzen dituen xaboiak «azala segituan leheneratzen da», eta, gainera, dermatitisa, zauri txikiak eta aknea tratatzeko egokiak dira. Hori bai, Gutierrezek ez du inor engainatu nahi: «Ez dituzte gaixotasunok sendatzen, laguntzen badute ere». Alergia sortzen zion osagai kimikoa izango ez zuen xaboi baten bi-

la etorri zen mutilaren kasua ekarri du gogora. «Ohiko xaboi guztiek dute osagai kimiko hori, nire xaboiak izan ezik».

AHOZ AHO

Gutierrezek bezero fidelak ditu, baita produktuen ikusgarritasunagatik dendan sartzen direnak ere. Normalean, baina, ahoz ahokoak funtzionatzen du. «Behin probatuta, hori bai, betirako erori dira sarean!», gaineratu du, barrezka.

Askotariko bezeroak dituela nabarmendu du, «naturista, begano eta modernoetatik hasi eta betiko xaboi klasikoak erosi nahi dituzten pertsonengana iritsi arte». Azkenontzat, oliba olio puruz eginiko xaboi tradizionalak ditu: «Betidanik

egin den olio da. Olio birjina-ekin egiten da, birziklatutakoa erabiltzea debekatuta dagoelako».

GUSTUKO LEKUAN ALDAPARIK EZ

«Nik baino xaboi gehiago ez dauka inor», zehaztu du Gutierrezek, arrosa koloreko bat erakusten duen bitartean. Dena den, Internetek eta supermerkatu handien irekierak mesederik egin ez diotela aitortu du, baita krisi garaian salerosketa «geldiago» zegoela ere. Ordutegia eta bakarrik egotea dira lanaren aspektu txarrenak. Aspektu onak, baina, nagusitu egiten direla dio: «Nire senarrak laguntzen dit eta gustuko dudana da. Hori da garrantzitsua».

Eskuinean eta goitik behera, artisau-xaboiak, glizerinazko xaboiak eta komuneko-bonbak.

Idoia ZABALETA | FOKU



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Azken mohikanoak

Eztanda egin du azken asteotan euskaltzaleen arteko lurpeko tentsioak Gasteizen, Armentia lkas-tolak ateratako bideo baten harira. Haizatu dira iritziak eta egongo da denbora euskarazko eskolen marko juridikoa eta horrek sortu dituenak eztabaidatzeko (bai, bai, berriro...). Beste alde batetik heldu nahi nioke aferari, agian orokorregia izateko arriskuarekin: euskara eta hezkuntza.

Lehenari dagokionez, abiapuntuari sinple deritzot. Nola balioko du EAEko Gobernuaren hezkuntza sistemak jendartea euskalduntzeko, uste baldin bado, euskarazko telebista publikoan urte luzez ikusi dugunaren arabera, euskaldunok munduan gehien maite duguna segalari apustuak, auresku txapelketak, bi orduko mariatxi eta jota errezitaldiak direla? Kate tematikotokiko batean bale, baina, gainontzean... Egia esan, nik ere gustura ikusten ditut noizean behin bertso batzuk eta artzain txakurrak, baina hori ezin da inondik inora izan euskarazko kate publiko bakarraren, egungo euskal unibertsalon –*Basque Universal Worldwhile Bilbao Spectators Crew*, ideiak ematearren...– oinarritzko erreferentzia. Euskararen irudi landartatu eta folklorizatua duen Gobernuak nekez erabakiko ditu 2018. urteko jendarte eleanitza euskalduntzeko hezkuntza politika eraginkorrak. Azken urteotan, euskararen erabileraren estankamendua eta burokratizazioa (fossilizazioaren aurrekari arriskutsua?) dira horren zantzu beldurgarriak. Baina errua ETBri –are gutxiago bertako langileei– botatzea ez da zilegi.

Hezkuntza sistema bera da, bere osotasunean, loa kentzen didana. Batez ere bigarren hezkuntzan, eskola eta kanpoko mundua ez datoz bat. Gure institutuek antz gehiago dute XIX.

mende bukaerako fabrika fordista batekin, beste ezerekin baino. Orduategi guztiz hertsia, arautegi autoritarioetan oinarritutako eguneroko harremanak, beharrezko atsedetik gabeko lan jarraitua (bai irakasleentzat bai ikasleentzat)... Esan dezakegu irakasle eta ikasleok XIX. mendeko estatu egituren azken mohikanoak garela. Derrigorrezko Hezkuntzaren sistema bera, soldadutzaren, geografia aberkoiaren eta himno nazionalen garaian iltzaturik geratu da.

Hezkuntzako langileoi herritarrak instruitzea eta alfabetizatzea exijitzen digu sistemak, hiritar zintzo izan daitezen. Eta horretarako okurritzen zaion oinarritzko plana, hiru urtetik hamaseira arteko haur eta gaztetxo guztiak masan, egunero, zentro itxi batera bidaltzea da! Labe garaietan eta zapata fabriketan lan egiteko prestatu zituzten gure aitona-amonak horrela joan ziren eskolara. Eta *la letra con sangre entra* famatuaren garaian, alfabetatu

egin zituzten gazteleraz eta frantsesez, bai Bilbon eta bai Brozasen. Baina esatera zaharra albo batera utzita ere, ehun urte geroago, Estatuak gauza bera egiteko exijitzen digu irakasleoi.

Horren soluziobidea ez dago oinarritzko gaitasunak direlakoetan, hain zuzen, politika neoliberalak sustatzen dituzten interes berak daudelako azken urteotako hezkuntza berrikuntzako planen atzean.

Ezta lehenagoko autoritate ereduetara itzultzean ere. Eta askok uste dute euskara eta hezkuntza ezarri zaigun mundura egokitzea, hizkuntza *telecincotu* eta eskola neoliberalizatzea dela. Eta agian... orduan bai itzuli beharko genukeela XIX. mendera. Hezkuntzaren eta alfabetizazioaren alderdi askatzailea aldarrikatzen zuten iraultzaile haietara. Mundura egokitzea baino, mundu hori bera aldatzeko bai euskara bai hezkuntza tresna askatzaileak direla pentsatzen hasi beharko genuke. •



Gure institutuek XIX. mendeko fabrika fordisten antza dute.

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Skolae eta doktrinamendua

Skolae programaren harira “inposizio” eta “doktrinamendu” hitzak entzuten ari gara behin da berriro. Itxuraz, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak bultzatutako programak gure haurrei balio jakin batzuk inposatu nahi dizkio. Orain dela sei bat urte liburu bat idatzi nuen emakumeek historian zehar jasandako doktrinamenduaren inguruan. Beraz, eta baita emakumea naizen heinean, doktrinamenduari buruz zertxobait badakidala uste dut. Ez dut *autobomboan* erortzeko asmorik, baina “¿Vírgenes o putas? 500 años de adoctrinamiento femenino” liburuan historian zehar emakumearen inguruan eraiki diren diskurtso doktrinatzailerak aztertzen nituen. Bi ereduren arabera hezi gaituzte, Ama Birjina eta Eva; hau da, emakume onak eta emakume gaiztoak. Gizartearentzat genuen betebeharrak nagusia haurrak mundura ekartzea eta horiek balio kristauetan hezte zela esan izan zaigu. Amatasunaz gain, gure beste egin-beharra gure sexualitatea kontrolatzea zela ere esan zaigu mendeetan zehar. Izan ere, gizartearen ongizatea eta bakea gure esku zeuden, gu baikinena gizonak probokatzen genituenak; gure gorputza eta sexualitatea zikinak ziren eta gu errudunak, hortaz, gu geu izan behar ginen diziplinatuak, guk jaso behar genuen doktrinamendua. Emakume onaren ideala irentsarazi ziguten; emakume zintzoa, apala, kristaua... Emakume “ona”, azken finean.

Doktrinamendua pentsamendu bakar baten inposizioa izanik, errespetua alde batera utziz eta zigorrak baliatuz Skolaek gure haurrak doktrinatu nahi dituela entzuten dudanean sutan jartzen naiz. Eredu pribatu utzi beharreko kontuak direla Skolaek inposatu nahi dituenak ere esaten dute. Ez jaun-andreok, ber-

dintasuna, errespetua, autoezagutza eta burujabetza bezalako kontzeptuak eskola publikoan jorratzea ez da inolaz ere eztabaidagarria, giza eskubideetan agertzen diren balioak eztabaidagarri ez diren bezala. Gure haurrak pentsamendu askatasunean, bestearen eta bere buruaren ezagutza eta errespetuan hezte berezko balioa da, doktrinamenduaren kontrakoa, hain zuzen ere. Eskola publikoan zein pribatuan gure haurrek matematika ikasgai bezala jasotzea eztabaidagarri ez den bezala, sexualitatea eta berdintasuna ikasgai transbertsalak izateak ere ez luke eztabaidagarri izan behar. Erregistroak existitzen direnetik ia 1.000 emakume erailak izan diren Estatuan Skolaek «generoaren ideologiaren inposizioa» bilatzen duela aipatzeari lotsagarria deritzot.

Gizon eta emakumeon arteko berdintasuna lantzea ezin da hautazkoa izan gure hezkuntza sisteman. Horrelako proiektu bat aplikatu nahi ez duenak diru publikorik gabe gelditu beharko luke

Gauza bakar bat leporatzen diot Skolae proiektuaren bultzatzaileei: ausardia falta. UPNk eta PPK inposizioa salatu dute eta berehala Nafarroako Gobernua azaldu da esanez ez dutela inolaz ere programa hau inposatzen, eskolei aurkeztu eta eskainitako proiektua dela eta askatasuna eman dutela Skolae martxan jartzeko. Motz gelditu direla iruditzen zait eta, berriro ere, eskuin-liberalen askatasun indibidualaren erabilpen maltzurra salagarria iruditzen zait. Gizon eta emakumeon arteko berdintasuna lantzea ezin da hautazkoa izan gure hezkuntza sisteman eta horrelako proiektu bat aplikatu nahi ez duenak diru publikorik gabe gelditu beharko luke. •

Alexander Rodriguez ikasitakoa beste arlo batzuetan erabilgarri egiten saiatzearen aldekoa da. Ekuazio hori bere curriculumean bertan ere aplikatu du Arrigorriagakoak, psikologoa, hezitzailea, orientatzailea eta giza eskubideen aldeko aktibista baita besteak beste (Amnesty International erakundeko ordezkaria izan zen Gasteizen). “De Fobos y Deimos” bideo jokoaren egilea ere bada, eta jokoaren munduan

LGTBI komunitatea ikustaraztea helburu duen Gaymer.es ekimeneko kidea. Jokabide kabineteen egiten du lan, eta bertan giza-trebetasunak bideo jokoaren bitartez garatzen aritzen da, besteak beste.

Jokin da «De Fobos y Deimos» bideo jokoaren protagonista. Defendatzaileen Akademian ikasten hasi da. Hori da jokoaren abiapuntua. Zertan datza gero?

Jokalaria Jokin da eta interakzioa egongo da beste protagonistekin, objektuekin... Jokin

mugitu eta aurkitzen dituen egoeren aurrean erantzuna eman behar dugu; erabakiak hartu eta istorioa aurrera eramane behar dugu, liburu bat balitz bezala. Rol jokoak horrelakoak dira; beste pertsona baten lekuan jartzea da gakoa.

Zer-nolako egoerak aurkitzen ditu Jokinek?

Penintsula batean bizi da, eta, bertatik mugitzen doa, egoera ezberdinekin topo eginez. Lehengo egoera Jokinen sexualitatearen ingurukoa da. Lortu behar dugu Jokinek bere se-

«Jokoan sortzen diren egoerak gertaera errealetan oinarrituta daude.

Fantasia toke bat dute baina errealak dira. Gai bat gizarteratu nahi badut, istorio errealak kontatzen saiatu behar dut»

xualitatea onartzea; kasu honetan mutil homosexuala da. Bigarren kapitulu batean beste pertsonaia bat ezagutuko dugu, generoarekin lotutako bullying-a pairatzen duen neska bat. Beste momentu batean fisikoarekin zerikusia duen beste egoera bat ezagutuko dugu... Sortzen diren fantasiako egoera guztiak gertaera errealetan oinarrituta daude. Bideo jokoak piztu bezain laster ikusten da istorio guztiak benetakoak direla; zati batzuk nire bizipenetan oinarritzen dira, besteak lagunenak dira...



«Seme-alabekin jolastu, bideo jokoei beldurra kendu eta tabu batzuk apurtu behar dituzte gurasoek»

Egoera errealak dira guztiak, fantasia ukitu batekin beste kolore bat emateko istorioari, errealismo magikoa bailitzan. Gaia gizartera hurbildu nahi badut, istorio errealak kontatzen saiatu behar dut.

Helburua pentsaraztea da?

Egoerak azaltzen dira gatazka bat planteatuta. Une batean protagonista bati gatazka bat sortzen zaio, Jokin gatazka horren lekuko da eta saiatu behar du pertsona horri zer gertatzen zaion ulertzen. Kapituluaren amaierara hurbiltzean, elkarrizketa bat dago pertsonaia batekin, eta horretan guk erantzun batzuk eman behar ditugu. Erantzun horiekin pertsona hori konbentzitu behar dugu gurekin gera dadin. Erantzun egokiak emateko garrantzitsua da ulertzea zer pasatzen zaion pertsona horri; bere azalean jartzea funtsezkoa da. Hasieran Jokinen azalean jarri behar dugu, bere emozioak eta sentimenduak ulertu; gero beste pertsona batzuenak ulertu behar ditugu. Enpatia garatzeko lehenengo baldintza da gure sentimenduak ulertzea, oso zaila baita besteekin enpatizatzea gure burua ez badugu onartzen, gure sentimenduak ez baditugu kudeatzen. Beraz, lehenengo kapituluan Jokin saiatzen da bere burua ulertzen, eta, gero, beste pertsona batzuen lekuan jartzen da; ematen ditugun erantzunen arabera lortuko dugu aurrera egitea. Erantzunak okerrak badira, *game over*, berriro itzuli beharko dut atzera, erantzunak berriro zuzen erantzuten saiatu beharko dut.

Egoera bat azal dezakezu?

Akademiako neska batek alde egiten du bertatik generoarekin lotutako *bullying*-a jasaten

duelako. Oso neska indartsua da, oso ona esgrima bezalako ikasgaietan; bada, batzuek hori erabiltzen dute bere aurka egiteko, *marimacho* deituz edo *bollera* hitza irain modura botata. Une batean alde egiten du eta irakasleak eskatzen digu berarengana joateko. Mendira joan da eta, igotzen goazen bitartean, irakaslearen eta Jokinen arteko elkarrizketa bat ematen da; Jokinek planteatzen dio irakasleari oso rol hotza hartzen duela, irakasleak ikasleekin inplikatu egin behar direla... Tontorrera heltzean, irakasleak onartzen du Jokinek gaitasun handiagoa izan duela enpatia garatzeko. Hala, Jokin arduratzen da neska itzul dadin konbentzitzeaz. Neskak ez du akademiara itzuli nahi, ez du uste berekiko jarri hobetuko denik eta guk itzultzeko konbentzitu behar dugu; gure laguntzarekin aurkakotasun giroa alda daitekeela sinestarazi behar diogu.

Nerabeekin esperimentatzeko aukera izan duzue?

Orain arte oso erantzun positiboa jaso dugu nerabeen artean. Bideo jokoen hizkuntza, zer gertatzen den ulertzen dute. Printzipioz 12 urtetik gorakoentzat da, baina ikusi dut 10 urteko neska-mutilek ere primeran ulertzen dutela. Eskoletara ez dugu momentuz eraman, horretan gabilta orain; ikastola batzuekin hitz egin dugu jada. Bi bertsio ditugu, bideo jokoak, hau da, bertsio ludikoa, eta hezkuntzarako presatatutako beste bertsio bat. Bat etxean jolasteko da eta, bestea, laburragoa, eskolan erabil daiteke. Dagoeneko eskola batzuek interesa erakutsi dute. Orain arte jolastu dutenak pozik geratu dira. Gaymer.es, FEMDEVs, COGAM eta Arnas-

tun jolastu dute. Aurrerantzean, ikusiko dugu jokoen erabilera noraino heltzen den. Espero dut urrun heltzea.

Sarean ikusitako hausnarke-ta bat: «Heroia ez da protagonista soilik, eredu da».

Izan ditugun erreferenteak beti izan dira heroi ahalguztidunak. Nire jokoen guztiz kontrako gertatzen da. Jokinek boterea du, bere lagunek boterea dute, gizartea aldatzen saiatzen dira baina ez dute berez lortzen; gizartea bakarrik aldatzen da Jokin eta bera bezalako erreferenteak daudelako. Gauzak aldatzeko aukeran pentsa daiteke, baina ez hori pertsona bakar batek egingo duenik. Erantzukizuna gurea da, mundua aldatuko da gu aldatzen bagara. Ondo legoke heroi berriak sortzea, ez hain ahalguztidunak, humanoagoak, okertzen direnak baina ikasten dutenak... Oso garrantzitsua da heroiek ere gorabeherak dituztela ikustea, bizitza horrelakoa baita.

Bideo jokoetan indarkeriarekin lotutako gaiak dira nagusi. Ez al dago gai gehiago?

Ospetsuenak indarkeria erabiltzen duten horiek izaten dira beti, baina badaude beste joko batzuk ere, indarkeriarekin lotuta ez dauden edo indarkeria beste era batera erabiltzen dutenak. Ez dira ospetsu egiten, eta, sarri, aurrekontu askoz ere txikiagoarekin egiten dira. Jendeak pentsatu ohi du indarkeria eta jokoak batera doazela, baina gertatzen dena da ez dituztela beste bideo joko horiek ezagutzen. Ikastola batera edo guraso elkarte batera bideo jokoei buruz hitz egitera noanean, ikusten dut ez dugula ezagutzen bide jokoen munduan da-

ALEXANDER RODRIGUEZ

PSIKOLOGOA ETA BIDEO JOKO SORTZAILEA

LGTB kolektiboak zein beste talde

batzuek jasaten duten jazarpenaren aurka

borraka egiten duen «De Fobos y

Deimos» bideo jokoak sortu du. Psikologoa,

hezitzailea eta giza eskubideen aldeko

aktibista, bideo jokoez badu zer esan.

Nerea GOTI

goen aniztasuna. Batzuetan beharrezkoa da norbaitek bes-telako joko horiek erakustea. Zinemarekin antzekoa gertatzen da: indarkeriarekin lotutako filmak bakarrik daudela pentsa daiteke. Indarkeria erabiltzen ez duten bideo joko asko daude. Nik oso gustuko dut, adibidez, “Undertale”. Bi bide ditu, bat bakezalea eta indarkeriarekin lotutako beste bat. Norbait hil edo jotzekotan, esperimentziak bizitzen ditugu, zenbat munstro hil ditugun, nola sentitzen garen... Bide bakezalea hautatuta, munstroarekin hitz egin dezaket, ferekatu, joateko esan... Hartutako bidearen arabera, amaiera bat edo bestea dago. Jokoa asko aldatzen da, ikus dezakezu beste era batera jokatuta munstro horiek lagunak ere izan daitezkeela.

Hezitzailea eta bideo joko zalea. Esan duzu oso tresna boteretsuak direla, baina belau-naldi batzuentzat arrotza da mundu hori, kutsu negatiboa du. Zer esango zenieke?

Gogoeta bat egitea eskatuko nuke: telebista agertu zen unea gogoratzea, zeuden kezak, berdin sakelako telefonoekin... Guraso batzuk kezkatzen dira seme-alabak denbora guztian sakelako telefonoari adi daudela, eta, gero, heldu horiek nirekin hitz egiten daudenean, berdina egiten dute. Haurrak etxean ikusten duena egiten du. Teknologia badauka bere lekua denboran eta espazioan, ez diogu beldurrik izan behar, gurea da eta erabiltzeko dago, ondo erabiltzeko. Ezberdindu behar da zer den zerbait ongi erabiltzea eta zer ez. Hitz egiten ari banaiz eta zu denbora osoan telefonora begira bazaude, ez da onuragarria; 24 orduz eskegita egotea



Luis JAUREGIALTZO | FOKU

«Bideo jokoetan izan ohi ditugun erreferenteak heroi ahalguztidunak izaten dira. Ondo legoke heroi berriak sortzea, bihozberagoak»



ez da onuragarria, pantailari oihu egitea ez da onuragarria... Hala ere, partida bat ikusten telebistari oihu egiten diogu eta ez gara kezkatzen, baina bai ordea haurrak egiten badu joko batean galtzean. Subjektiboa da agian, baina jokatzeko dagoenak galtzen badu, normalagoa da oihukatzea, ulergarriagoa da; Ronaldok ere egiten du.

Bideo jokoekiko beldurra galdu behar da, eta hori umearekin jolasten lortzen da. Bideo joko bat aukeratzeko, den-

dako profesionalari galdetu, azaldu zertarako nahi duzun, frustrazioa lantzeko den, joko erreka bat nahi duzun... Saiatu hitz egiten eta iritzia jasotzen, era horretara bideo jokoak gure bizitzan sartuko dira eta hobeto ulertuko ditugu. Ordenagailuak etxeetara heldu zirenean, moldatu egin ginen. Planteamendua honakoa da: “egokitu egin naiteke, eta, gainera, nire umearekin emango dudana denbora izango da”. Pentsa, futbolarik eta indarkeriak batzuetan oso harremana

estua dute eta horrek ez digu beldurrik ematen, kulturalki onartuta daukagulako. Beste herrialde batzuetan, Japonian adibidez, bideo jokoek onarpen askoz handiagoa dute, neurri handi batean han sortu zirelako. Tabu batzuk apurtu behar ditugu eta beldur batzuk kulturalak direla kontuan hartu.

Hezitzaile eta erabiltzaile modura zeri diozu beldurra?

Erreparatu egin behar diogu teknologia izan behar duen

tokiari, eta denborari; teknologia itzalita egon behar den une bat ere egon behar da. Ezin dugu 24 ordutan erabili, ezin dugu erabili txarto pasatzeko. Bideo jokoak, kirola, literatura... ondo pasatzeko dira, kontrako gertatzen bada, albo batera utzi edo bideo jokoa aldatu eta beste bat aukeratu. Txarto pasatzen baduzu, jokatzeari utzi edo jolasten denbora gutxiago pasatu. Jokoa ezin du antsietatea, frustrazioa, lehiakortasuna... sortu. Gauza horiek moztu egin behar dira.

Euskaraldia

Joxean Agirre

Hizkuntzak oparoegiak dira. Oxford hiztegiak 350.000 hitz ditu eta Shakespearek 15.000 erabili zituen bere obra idazteko. RAEren hiztegiak 80.000 sarrera ditu eta Cervantesek berea 8.000 hitzekin idatzi zuen. Euskaltzaindiaren hiztegiak 145.000 sarrera ditu eta ipuin on bat idatz daiteke mila hitzekin. Eguneroko harremanerako, berriz, aski omen dira 300.

Beraz, belarriprest txapa etxean duzuenok, jakin ezazue aski dela egunean hamar hitz ikastea, hilabeteren buruan

edonorekin eguraldiaz, futbolaz edo maitasunaz hitz egiteko.

Hainbeste ahobizi eta belarripresten artean hirugarren txapa bat botatzen dut faltan, euskaraz hitz egiten gozatzen dutenena. Oso tarteka sumatzen ditut, adineko jendea da, ez naiz ari Euskadi Irratian edo telebistan hitz eta pitz jarduten dutenez. Beste prosodia bat dute. Euskarari eraikitako monumentu ibiltariak dira. Horiek hiltzen direnean zerbait garrantzitsua desagertuko dela iruditzen zait.

Imanol Lazkanok kontatzen du gazteak zirela Errezilgo Borondegi tabernara

joaten zirela igande arratsaldetan, han egoten ziren aitona hiztun eder batzuei entzuten egotera. Oraindik ere gelditzen dira ale batzuk eta ni bezala hiztun traketsak garenontzat mirariak bezala dira.

Baina desbideratu egin naiz. Euskaraldian gaude eta garrantzitsuena ondo edo gaizki euskaraz hitz egitea da, zarauztar etorkin hark egiten zuen moduan: behin herriko apaizak zerbait agindu omen zion eta *“Berorrek nahi badezu, eingo yau”*, esan omen zion. •

Gertutasun erlatiboa

Nekane Zinkunegi
Barandiaran

Izaten dira harremanak, egunerokoak izanda ere, erabat arinak eta azalekoak direnak. Eguraldiaz, bezperako loaren kalitateaz edo asteburuko planez haragoko elkarriketetatik pasatzen ez direnak. Badira, ordea, distantziaz urrunduago egon arren, konfiantza handiagoko harremanak ere. Email, watxap edo bestelako tresnek ematen duten kontakturako aukera baliatuta, edozertaz aritzeko moduko lasaitasuna eta konfiantza sorrarazten duten erlazioak. Seguru asko, aurrez aurre egoteko

presiorik ezak azalpen asko aurrezteko aukera ematen duelako.

Egunerokoan parean tokatu ez baina urtean egun jakinetan elkartzen direnek ere izaten dituzte, askotan, konfiantza handiko harremanak. Ikusi gabe hilabeteak pasatu arren, inoiz elkarrengandik bereizita egon ez balira bezala, behartu gabe, berez ateratzen diren elkarriketetarako aukera ematen dutenak. Mahai bueltan eserita edo trago bat eskuan hartuta, garai bateko ateraldiak oroitzuz barre algaraka plaze-

rezko egonaldiak partekatzeko moduko harremanak.

Joan den asteburuan izan dut sentsazio hori. Aspaldian egon gabeko lagun min batzuk elkartu eta dena erraz zihotala, ongi moldatzen ginela, kode berean komunikatzen garela. Halakoetan, euforiak eraginda, tentazioa izaten da ustekabeen sortutako uneak hurrengo baterako planifikatzeko. Baina planifikazio faltan ez ote dago xarma? Aurreikusitako gabeko une horiek sortzen direnean, guztia gerta dadin uztean? •



> Kathrine Switzer: «Ez beldurrik izan!»



Alardepublico.org

Kathrine Switzer da dortsala soinean maratoi bat egin zuen lehen emakumea. Bostonen egin zuen, 1967an, lasterketa gizonezkoentzat soilik antolatzen zenean. Switzerrek “KV Switzer” izena eman zuen urte



hartako Bostongo maratoian inskripzioa egiterakoan. Korrika hasitakoan, lasterketako komisarioetako bat, Jock Semple, Switzer emakumea zela konturatuta, korrikalaria geldiarazten eta bultzaka bidetik

ateratzen saiatu zen. Baina Switzerrek ez zuen amore eman eta bere mutil lagunaren eta beste zenbait korrikalarien laguntzaz lasterketan jarraitu eta helmugaraino iristea lortu zuen, lau ordu eta 20 minuturen buruan.

Joan den igandeko Behobia-Donostia herri lasterketa zela eta, Switzer Euskal Herrian izan da. Larunbatean Alarde parekideko zenbait kidek omendu egin zuten. Dozena erdi emakumek lore sorta bat eta txapel gorri bat eman zizkioten. Switzerrek hitzok esan zituen emakume guztientzat: «Be fearless!». Hau da, «ez beldurrik izan». Switzer Bostongo maratoian ageri den irudia Irungo eta Hondarribiko alardeetan emakumeek parte hartzearen aldeko kanpaina ugaritan erabili izan dute.

Igandeko herri lasterketa ikusi ondoren, irabazleei sariak emateko arduradunetako bat izan zen atleta estatubatuarra, eta bera ere ez zen esku-hutsik joan, Aroa Merino lasterketako irabazleak bere garaikurra oparitu baitzion.



> «Altsasu aurrera», Bilboko Salbeko zubiaren oihu isila

Guardia Zibilaren kuartelaren eta Guggenheim museoaren artean dagoen Salbeko zubiak Altsasuko auzipetuen askatasuna aldarrikatzen du. Ernai gazte erakundeak eman du pintaketaren berri. “Altsasu aurrera” leloa irakurgai dago Salbe zubiaren argazkietan.

Hain justu gaur bi urte bete dira Altsasuko auziagatik au-



rreneko sarekada egin zela. Liskar haren ondoren izandako prozesu judiziala medio, zazpi gazte preso daude.

Urtemuga honen harira, gazteak, gizarte eragileak, he-dabideak, juristak eta Europa-ko ordezkariak Altsasuko auzia aztertzen ari dira Iruñean, atzo eta gaur, #Altsasukoakaske jardunaldietan.



> Euskal izenak, mugikorrerako aplikazio batean

Ume bati izena jartzeak maiz dakarren buruhausteei amaiera eman eta prozesu horretan lagungarri izateko asmoz sortu dute Euskal Izendegia telefono mugikorrentzako aplikazioa. Neska zein mutilentzako euskarazko izendegiak jasotzen ditu aplikazioak. Euskal izenen esanahi, datu eta estatistikak ditu oinarri eta Android sistema eragilea duten mugikorretan erabil daiteke. Apli-



kazioan, besteak beste, sexuen arabera izen zerrendak eta izen aukeratueneen esanahia eta jatorria bila daitezke. Estatu espainolean aukeratutako izena zenbat pertsonak duten, pertsonon batez besteko adina eta izenak EUSTATen duen postua ere jakin daiteke. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan izenak izan duen bilakaera ere jasotzen da.

> PPko gazteak, birziklapen eredu

PPren Nuevas Generaciones gazte erakundeko zazpi kide Ajuria Eneko sarreran elkarretaratu ziren asteazkenean, Quim Torra Generalitateko presidentea hara agertzekoa baitzen, Gure Esku Dago ekimenak antolatutako bisitaren baitan, Iñigo Urkullurekin biltzeko. Pankarta bat zabaldu zuten, “Golpistas Fuera. Torra, utzi Euskadi bakean” irakurgai eta erdian Espainiako bandera erdia eta ikurrin erdia zituena.



Irudia sareetara iritsi zen eta txiolariren baten begi erneak PPko gazteek erabili zuten pankartaren atzeko mezuari erreparatu zion. Hala Bedik, ondoren, “PPko gazteen pankarta baten osteko historia” izenburuko albistean jakinarazi zuenez, protesta hori egiteko erabili zuten pankartak bere atzeko aldean Baskoniaren eta Moskuko CSKAREN arteko partida bat iragartzen zuen eta bertan, halaber, Udalaren logotipoa agertzen zen.



> Arrazakeriaren kontrako menuak asebeteta

Igandean 58 herrialdeetako 2.542 pertsona eseri ziren arrazakeriaren kontrako menua dastatzera, SOS Arrazakeriak bultzatutako Bizilagunak kultura arteko bazkarien zazpigarren edizioan. Euskal Herriko familiak eta hemen bizimodu berri bati ekin diotenak mahai berean bildu eta euren arteko loturak sustatzea du xede egitas-



moak. 2012tik, 10.000 bat lagunek parte hartu dute Lakuak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 20 udalek eta erakundek ZAS! Zurrumurruen Aurkako Euskal Herriko Sarearen bidez bultzatutako ekimean, elkarbizitza eta begirunea sustatuko dituzten jarrerak zabaltzeko zein estereotipo eta zurrumurruei aurre egiteko.



Pescador 13 urte zituela hasi zen arraunean, Hibaikan. Andoni CANELLADA | FOKU

infraganti ANE PESCADOR

Denboraldian zehar arrauna uzteko erabakia %98an hartu zuen. Ondarroako bandera salbu beste guztia irabazi du San Juanek, baina urte gogorra izan dela dio Ane Pescadorrek. Lortutakoa gehiago baloratzea bota du faltan eta, hamahiru urteren ostean, atsedean hartuko du. Kontxako estropadak gabarroian ikusten hasi eta bost aldiz irabazten bukatu du.

Oso esanguratsua da gertatu dena eta ez da arraunlarien artean arazoak egon direlako gertatu. Gertatu denak balio beharko luke batzuk hausnartzen jaritzeko». San Juaneko batelerentzat bukatu da ziklo bat, bost Euskotren liga eta beste bost Kontxa, bata bestearen segidan, irabazi ostean. Garai guttiz loriatsua markatu dute eta bertako parte izan diren

arraunlari gehienek beste etapa bati hasiera emango diote; batzuek beste talde batean eta Ane Pescadorrek (Errenteria, 1992), esaterako, arrauna alde batera utzita, «momentuz». Momentuko arnas puntua izango dela konbentzituta dago, egunen batean itzuliko den ziurtasuna dauka, «baina momentuz arnasa behar dut».

«Nahi dudana nahi dudanean egin nahi dut». Arraunak diziplina serioa eskatzen du eta orain bizitza beste modu batera bizi nahi du, orain arte egin ezin izan dituen gauzak eginez: «Txorakeriak dira. Adibidez, lagunekin eta familiarekin gehiago egon, Madalenetan irten eta danborrada jotzea...». Kirola egiten eta arrauna beste ikuspuntu batek ikusten jarraituko duela argi dauka –«ez dut ikusten nire burua astebururo parrandan»–, «baina behar dut askatasun pixka bat une oro nahi dudana egiteko».

Onartzen du gogorra izan daitekeela esatea gauzak edo aukerak kendu dizkiola arraunak azken hamahiru urteotan; baina, jakina, balantza batean jarritz gero, emandakoa gehiago izan dela argi du. «Oso pertsona urduria naiz, oso oldartsua, eta nire bizitzako une txarretan pila bat lagundu dit arraunak. Hor askatu ditut haserre eta tristura guztiak. Denbora tarte batean oso ondo etorri zaidan zerbait izan da arrauna, pila bat eman dit eta pila bat disfrutatu dut modu horretan», laburbildu du Pescadorrek.

Hamahiru urte eman ditu arraunean, palada bat bestearen atzetik joaz 13 urte zituenetik. Hibaikan, herriko klubean, eman zituen aurreneko pausoak, bi urte geroago San Juanera joateko erabakia hartu

zuen arte. «Hibaikan ez geunden nahikoa neska talde bat ateratzeko, eta San Juanera joan edo urtebete lehiatu gabe egon behar nuen, helduagoe-kin entrenatzen», gogoratu du. Pasai Donibanen ere baldintzak hobeak zirela aitortu du, izen gehiagoko kluba zelako eta diru laguntzak hobeak zirelako. Uretaratzerako orduan ere igarri zuen aldea, «Hibaika zoritxarrez baldintzatuago dago, ibaiaren arabera jokatu behar baita itsasoratzean ere».

KONTXAKO POZ ETA PENAK

Aitarengatik datorkio arraunerako zaletasuna, jada barnean iltzatuta geratu zaiona. Txikitako paseoak ekarri ditu gogorra, ontzi edo batelei begira-begira geratzen zen garaiak. «Kontxako banderan urterotero Kontxako gabarroira joaten ginen bertatik estropada zuzenean ikusteko. Oso goiz ikasi nuen igerian egiten eta txikitatik ikusi izan ditut estropadak gabarroitik».

«Nahigabe» edo «ohartu gabe», arraunerako zaletasuna sortu eta bertatik bertara probatzea erabaki zuen. «Zergatik ez?», galdetu eta kuadrillako bat ere animatu zen». Gerora lagunek utzi egin zuten baina berak jarraitzea erabaki zuen: «Harrapatu egin ninduen eta etxean ere pozik zeuden hartutako erabakiarekin».

Ordutik gauza asko bizi izan ditu arraunean –kirol jarduerari eskainitako orduak ere beste horrenbeste izan dira eta–. Makalaldiak zein arrakastak. Azken urteotan arrakastek protagonismoa hartu badute ere, aurreneko aldiz Kontxako estropadan parte hartzeko aukera izan zuen urteaz ez du oroitzapen onik gordetzen, nahiz eta denboraldi horretan bertan lehenengo aldiz ahiz-



Bizitzako fase batean arraunak ondo egin diola onartu du Ane Pescadorrek, baina, orain, «nahi dudana nahi dudanean egin nahi dut». Andoni CANELLADA | FOKU

paren alboan [Eli Pescador] lehiatzeko aukera izan zuen. «Ez nuen arraun egin sailkape-neko estropadan eta, pasatuz gero, nire aukera izango nuela esan zidaten. Azkenean ez ginen sailkatu».

«Niretzako urte oso politak izan ziren 2014 eta 2015; bi urte horiek politagoak izan ziren», nabarmendu du, azken denboraldietan Zumaiaiko traineruak utzitako hutsunearen gaia atera bezain pronto. «Zumaia, Hibaika eta gu [San Juan] borroka oso estuan aritu ginen. Zumaia oso talde erreferente bat bezala neukan, beti gustatu zait asko eta, nik neuk, bai bota dut faltan». Gerora bertako batzuk Batelerekin elkartu ziren taldean. «Zorionez», ñabartu nahi izan du, irribarrez, Ane Pescadorrek.

Zumaia talde erreferentea izan zen eta goian zegoela desagertu zen. Bateleren kasuan, desagertu ez, baina harrobira gehiago begiratu beharko du-te. Trantsizioa ezinbestekoa izango da. Pescadorrek badauka hurrengo urterako faborittoa: «Oriok aukera handiak izan ditzake».

Datorren denboraldirako lehenengo prestaketak azaroan hasten dituzte eta taldekideak botako ditu faltan Errenteriakoak. Segundo bat gelditu eta iruditzen zaio «bai idatzi dugula historiako pasar-

«2017ko Kontxa baldintza gogorretan jokatu ostean serioago hartu gaituzte. Ikuskizuna emateko gai ginela erakutsi behar izan genuen eta hori oso gogorra iruditzen zait»

«2014 eta 2015 urte politak izan ziren. Zumaia, Hibaika eta San Juan borroka estuan aritu baikinen», azaldu du. Azken urteetan Zumaiaiko trainerua faltan bota duela nabarmendu du

te bat», baina orain arte ez omen zen kontziente. «Gurpil batean sartzen zara eta egunerokotasunean jada badituzu aurre egin beharreko egoerak.

Makalaldiren bat badago, hori gainditu egin behar da, bakoitzak bere burua hobetu behar du...».

Orain perspektibarekin begiratzen du atzera eta, duela urte batzuk Gali-ziak lortutako bost Kontxak berdintzea ezinezkoa zela uste bazuen ere, berak lortu du. Berdindu bakarrik ez, marka ere gainditu du Laura Goldara-

zena, Ane Hernandez eta Nerea Perezekin batera. Lau horiek dira San Juanekin azken bost urteetan bost liga eta bost Kontxa elkarren segidan irabazi dituzten arraunlari euskaldun bakarrak.

DISTANTZIA BERA?

Ez da lorpen txikia. Irabazitako azken Kontxako bandera du gogokoen, hain justu, aurreneko aldiz gizon eta emakumeen sariak parekatu dituen hori. «Txalotzeko aurrerapausoa da, Zarauzko estropadan ere erabaki berdina hartu da», aitortu du. Baina bere irudipena da 2017ko Kontxako estropadaren ondorioz hartu dituztela «serio». «Ez zen sustorik jazo ez dakit zergatik. Baldintza horietan arraun eginda erakutsi behar izan genuen ikuskizuna emateko gai ginela eta hori oso gogorra iruditzen zait, hausnartzeko modukoa». Bere irudipena dela eta agian nahastuta dagoela argitu du, «baina sentsazio hori daukat» esanda. Onartu du orain kanpotik serioago hartzen dituztela, beraiek ere lan saioak eta kirola bera serioago hartzen dutelako. Guztia batera doa.

Berdintasunaren aferan, eztabaidagai da distantzien kontua. Neskek mutilen distantzia erdia egiten dute (2.778 metro), baina jakin badakite zer den 5.556 metrotan lehiatzea ere, «eta astebete lehenago abisatuta». Emankizunak motzago egiteko ezarritako araua delakoan dago, «emakumeok asko molestutzen dugu-eta». Beraiek argi dute gai direla egiteko, baina Pescadorren iritziz –«eta kritika batzuk jaso ditut honengatik»– ikuskizunarentzat onena, «guztiek», 2.778 metro egitea litzateke. •

Ane Urkiri Ansola



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Bihotz mina

Badatoz laster kontsumoari gehitzen zaizkion datak, Black Friday, Gabonen aurreko erosketak... Eta denok, urtero legez, gure soldataren zati handi bat gastatuko dugu behar ez ditugun gauza mordoan, ni neu lehena. Umeen aitzakian ero bihurtzen gara guztiok dendaz denda, edota *online* erosteko erraztasunen arrisku zoroan erortzen gara. Hango jertsea eta hemengo zapatilak, jostailu eta janariak, gutiziak, krema eta koloniak...

Bien bitartean, txalupa txikietan jendea egunetik egunera hiltzen ari da. Haurdun dauden emakumeak bizi hobe baten bila *patera* ahuletan itsasoaren barrenean itotzen ari dira. Aurreko batean telebistan ikusi nituen Cadizeko hondartza batean gorpu bakartiak maindire batez tolestuta, bertako herritarrak hildakoen bularretan lore zuriak jartzen.

Telebistan afrikar gizon batek zioen uzteko Afrika bakean, guk, europarrok, lehen munduko biztanleok, Afrika bakean utziko bagenu beraiek ez liratekeela hona etorriko, beraiek han bizi nahi dutela. Mundu guztia dardarka hasiko litzateke itsasoan hiltzen ari diren horiek guztiak zuriak eta gizonak izango balira. Baina, aldiz, beltzak dira, eta Afrikatik errekurtsu naturalak lapurtzea da Europari soilik interesatzen zaiona.

Egun hauetan buruan bueltaka ditut honako pentsamenduak; esaterako, zer balio ezberdina duen bizitzak han edo hemen jaio izate hutsagatik, edota sufrimendu bera jasateko gaitasuna ere nola aldatzen den bizi edo ikusten duzunaren ara-

bera. European gurasoek maiz galde-tzen dute ea hurrei trauma bat eragingo diegun ezezko bat esateagatik, eta, bitartean, Afrikako hurrek, Siriakoek, palestinarrek berebiziko traumak bizi ohi dituzte beren egunerokotasunean.

Greziako Olinpo mendian Siriako errefuxiatuak bizi dira gaur egun, duela hiruzpalau urtetik hantxe ahaztuta. Emakumeak, Sirian jihadistek bortxatu ostean, Olinpo mendian daude egun arima sendatu nahian. Nire lagun min bat hara joaten da urtero udaberrian sendagile lanak egitera. Bertan haurrak egunero ari dira hiltzen tuber-

kulosiak jota eta emakumeek haurdunaldi arriskutsuak dituzte. Arrisku horiek guztiak gorabehera, Europa zeharkatzeko bidaia ia ezinezkoak egingo dituzte. Eta gu, gure Euskal Herri maitean, zertan gabilta? Gure haurren Olentzerotako opari eta janari goxoak noiz erosiko antolatzen!


Denon artean antolatuko bagina, jendarte justuago bat lortuko genuke seguru, gauza eta pauso txikiekin gauza mordoa lortu baitaitezke. Udaberri honetan hara goaz Harremanak Elkarteko kideak, gure kide-tasun apurra partekatzeraz Olinpo mendira! •



Oztupoak oztupo, Europa zeharkatzeko bidaia ia ezinezkoak egingo dituzte migratzaileek.

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



BILBOKO UDAL ARTXIBOA. BILBOKO UDALA FUNTSA

URETAMENDI, TXABOLA EREMUA

Egile ezezaguneko irudi hau joan den mendeko 60ko hamarkadan Bilbon zeuden txabola eremuen gaineko erreportaje batekoa da. Erreportajeak txabolen eraispena eta Uretamendiko auzo berriaren eraikuntza erakusten du, besteak beste. Uretamendin 1948an hasi ziren txabolak eraikitzen; legez kanpokoa zenez, gauzez eraikitzen zituzten, eta, behin eraikita, ezin zituzten eraitsi. Eraikitze lanetan, beste txabolista batzuen laguntza izaten zuten. 300 familiatik gora bizi ziren txaboletan, gehienak ingurunekeo fabriketan lan egiten zuten immigranteenak. Han bizi zirenetako batzuek kontatzen zutenez, asfaltozko geruzaz estalitako zurezko xaflekin eginda zeuden. Barruan, gatzetan jarritako sardinzarren kaxekin egindako ohol-tza bat erabiltzen zuten zoru gisa. Ez zuten zerbitzurik; beraz, batzuetan euri ura erabiltzen zuten, baita Uretamenditik gertu edateko ura ematen zuten iturrietakoa ere. Kanpoan ez kalerik ez zoladurarik ez zegoenez, euria egitean ingurua lokatzez betetzen zen.

GAUR8 ireki gure leihoa

